

Ingurumena Kudeatzeko Sistemaren irismena, eskakizunak eta etekinak


ISO 14001



**Merkatuari eusteko
beharra?**



LURRALDE ANTOLAMENDU
ETA INGURUMEN SAILA
DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN
DEL TERRITORIO Y MEDIO AMBIENTE



IHOBE
Ingurumen Iharduketarako Sotietate Publikoa
Sociedad Pública Gestión Ambiental

Laguntzaileak:



Agrupación Cluster Industrias Componentes Automoción Euskadi



Acero y Medio Ambiente



Gipuzkoen Enjeneruen Elkartea Asociación de Ingenieros de Gipuzkoa Entzuzkoen/Ingenieruen Elkartea



EUSKADIKO ELKARTE LABORAL TALDEA AGRUPACION DE SOCIEDADES LABORALES DE EUSKADI



Asociación de Fundidores País Vasco y Navarra



ASOCIACION VIZCAINA DE EMPRESAS QUIMICAS



Confederación Empresarial de Bizkaia Bizkaiko Enpresarien Konfederazioa



CLUSTERPAPEL Asociación Cluster del Papel de Euskadi



Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa Confederación de Cooperativas de Euskadi



MONDRAGON CORPORACIÓN COOPERATIVA



SINDICATO EMPRESARIAL ALIENES ENLARGADO PATRONOS/SAKELA EL KAITZEA



Urtza Garaiko Garapenerako Agentzia S.A. Agencia de Desarrollo de Urtza Garaia S.A.



Aclima ASOCIACIÓN CLUSTER DE INDUSTRIAS DE MEDIO AMBIENTE DE EUSKADI



Cadem



EUSKALIT

Kalitaterako Euskal Iraskundeak Fundación Vasca para la Calidad

Jatorrizko bertsioaren egilea:

Heinz Werner Engel ekokontseilaria

Azala eta irudiak: Pierre Kroll

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila eta Ingurumena Kudeatzeko Sozietate Publikoa IHOBE, S.A.

Traducción euskerara: Elhuyar

Lege Gordailua: BI-214-02

©IHOBE 2002

Dokumentu hau "EMAS 2000. Ingurumena babesteko eta garapen jasangarriarako tresna dinamikoa" jatorrizko bertsioan dago oinarrituta. Bertsio hori 2000. urtean argitaratu zuen IHOBE, S.A. kide den International Network for Environmental Management-ek (INEM).

Halaber, Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailaren IHOBE, S.A. Ingurumena Kudeatzeko Sozietate Publikoak eskerrak eman nahi dizkio jatorrizko bertsioa egin duenari argitaratzeko baimena emateagatik. Proiektu originalean 14.000 & One Solutions, Ltd. aholkularitza-enpresak ere parte hartu du.



ISO-14001, ingurumenaren eta lehia-kortasunaren aldetik erakundeek dituzten helburuak lortzen laguntzeko Ingurumena Kudeatzeko Sistema

ISO 14001 eta etengabeko hobekuntza

Ingurumen Kudeaketari buruzko Nazioarteko Araua, ISO-14001, ingurumena merkatuko mekanismoen bidez babesteko planteamendu berria da.

Ingurumen-jokabide sendoa lortzen eta izaten laguntzen du, eta, horretarako, zure jarduerak, produktuek eta zerbitzuek ingurumenean duten eragina kontrolatzen du.

Ingurumena Kudeatzeko Sistemak edozein erakunderi, legearen aldetik dauden baldintzak kontuan hartuta, bai politika eta helburuak, bai enpresak eta ingurumenak elkarrekin duten eragina formulatzen lagun diezaion baldintzak zehazten ditu Arauak.

Geroz eta zorrotzagoa den ingurumen-legeriari erantzuten dio eta ingurumenaren babesa sustatzen du. Horrez gain, gizartean ingurumen-gaietan eta Garapen Jasangarriaren kontzeptuaren inguruan areagotzen ari den kezkarri ere erantzuten dio.

Arauen helburua erakundeek ekintzen ingurumen-jarduera eta poluzioa prebenitzeko konpromisoa etengabe hobe daitezen bultzatzea da.

Enpresa-mota eta -tamaina guztiei eta edozein baldintza geografiko, kultural eta sozialetan aplikatu daiteke araua.

Arauek ez du ingurumen-jokabiderako baldintza kategorikorik ematen. Ingurumen-politikan konpromisoa izateko, lege eta araudi aplikagarriak betetzeko eta etengabe hobetzeko bakarrik eskatzen du. Horretarako, enpresa osoak, batez ere Goi-mailako Zuzendaritzak, konpromisoa hartzea eta langileek parte hartzea ezinbestekoa da.

ISO 14001: ingurumen kudeaketa

Erakundeek arau hau martxan jartzen dutenean izan behar dituzten helburu nagusiak ondorengoak dira: ingurumen-jarduera etengabe hobetuko dela bermatzen duen Ingurumena Kudeatzeko Sistema ezartzea eta egunean izatea, erakundearen ingurumen-politikan finkatutakoa betetzen dela egiaztatzea eta Sistema horren kanpoko ziurtagiria lortzea.

Horrek ingurumena eguneroko kudeaketan geroz eta gehiago kontuan izaten laguntzen die enpresei.

Ingurumena Kudeatzeko Sistemaren eta erakundeak onartutako politikaren onespeneren kanpoko ziurtagiriek ISO-14001en eskemari sinesgarritasuna ematen diote.

Ikus informazio osagarria:
ISO 14001 bideoa: Zure enpresarentzako aukera.
 Dohain eskura dezakezu IHOBE-Line-n bidez (900 15 08 64).

ISO-14001 ziurtagiria duten erakunde gehienek etekin ekonomikoekin, kudeaketaren hobekuntzarekin eta langileen parte-hartzea areagotzarekin pozik daudela onartzen dute.

Orain arte, Euskal Autonomia Erkidegoan, ISO-14001 ziurtagiriaren erritmoa orain urte batzuk ISO 9000k izandakoaren antzekoa da, eta, dagoeneko, hainbat sektoretako ehunka enpresak dute ISO-14001 ziurtagiria. Dokumentu honen helburua ETEak arauaren ikuspegiarekin eta baldintzekin ohitzea da eta ziurtagiria eskuratzeko eman beharreko 18 pausoak zein diren jakitea. Pausoz pauso.

EDUKIA

Ingurumenaren Kudeaketa egunetik egunera	4. or.
ISO 14001 martxan jartzeko aldeko arrazoiak	5. or.
ISO 14001: Euskal Autonomia Erkidegoan ingurumen-ekimen aurreratuak	8. or.
ISO 14001, Ingurumena Kudeatzeko Sistema	10. or.
ISO 14001, teoriatik praktikara	11. or.
ISO 14001, legetik harantzago	13. or.
Ekintzarako prest	14. or.
Egunero martxan izateko eta kudeatzeko 7 pauso eta talde-lana egin behar dira	15. or.
Kontrola itzazu zure ingurumen-kudeaketa eta etengabeko hobekuntza 6 pausotan	17. or.
Ezin dut kudeatu neurtu ezin dudana	19. or.
ISO 14001-ek sinesgarritasuna esan nahi du	20. or.
Ingurumen Ziurtagiria: Bikaintasuna lortzeko ikurra	21. or.
Kanpoko ingurumen-komunikazioa eta elkarrizketa Ingurumena Kudeatzeko zure Sistemaren agertokiak dira	22. or.
ISO 14001-i buruz jakin beharreko guztia Ohiko galderak	23. or.



Ingurumenaren kudeaketa egunetik egunera

4

Zer da ingurumenaren kudeaketa?

Ingurumenaren kudeaketa ingurumenean inpaktua sortzen duten, sortu izan duten edo sor dezaketen enpresen jardueren kudeaketa da.

Helburua ingurumena zaintzea, poluzioari eta ingurumen-arriskuei aurre hartzea eta lantoki seguruak izatea da. Jarduera ekonomikoek inpaktu handia eragiten dute ingurumenean:

- Produktuak egiteko baliabide naturalak erabili behar dira eta baliabide horietatik gehienak behin ere ez dira salgai bilakatuko (uraren, energiaren, erregaien eta abarren kontsumoa)
- Fabrikazio-prozesuarekin lotura duten jarduerak (jarduera/instalazio osagarriak), esate baterako, mantentze-lanak, paketatzeak eta garraioak, eragina dute ingurumenean
- Gainera, produktu gehienak erabili ondoren hondakin bilakatzen dira
- Horniketek eta zerbitzuek ere eragin handia izan dezakete ingurumenean. Produktuak erabiltzeak eta produktuak erabiltzeko behar den energiak hondakinak, poluzioa eta isurpenak sorrarazten dituzte.

Zer da Ingurumena Kudeatzeko Sistema?

Ingurumena Kudeatzeko Sistema ingurumen-jarduerak eta kudeaketa-tresnak oinarri hartuta garatzen da.

Jarduera horiek bata bestearekin lotzen dira, argi definitutako helburuak lortzeko: ingurumen-jokabidea hobetzea. Ingurumena Kudeatzeko Sistema etengabeko zikloa da, enpresaren ingurumen-jarduera planifikatzeko, hari ekiteko, berrikusteko eta hobetzeko zikloa. Ingurumen-kudeaketa osoa sortzen laguntzen du.

Eman beharreko pausoen artean ondorengoak daude:

- Hasierako ebaluazioa egitea eta enpresaren jarduerarekin lotuta dauden ingurumen-aldeak identifikatzea.
- Kudeaketa-sistema planifikatzea.
- Finkatutako helburuak lortzeko ingurumena kudeatzeko programa egitea.
- Langileak trebatzeko eta kontzientziazteko programak prestatzea.
- Sistema martxan jartzea.
- Lege aldetik dauden baldintzak identifikatzea.
- Barruko jarraipena eta ikuskapena egitea.
- Ziurtagiri independentea izatea.
- Barrukoei eta kanpokoei komunikatzea Sistemaren helburua enpresaren ingurumen-jarduera etengabe hobetzea da eta helburu hori lortzeko jarriko da martxan.

Zer da ISO 14001?

Ingurumen Kudeaketari buruzko Nazioarteko Araua da eta bere egiteko erakundeei Ingurumena Kudeatzeko Sistema eragingarria izateko elementuak eskaintzea da. Arau horren helburua ingurumenaren babesari eta poluzioaren prebentzioari laguntza ematea da.

Eskemaren zati izan nahi duten enpresa pribatuek eta publikoek Ingurumena Kudeatzeko Sistema jarri behar dute martxan, ingurumen-jardueraren programa eratu behar dute eta etengabe beren ingurumen-jarduerak aztertu behar dituzte.

Enpresaren lana eta informazioa publikoki akreditatutako ziurtagiri independenteen bidez egiaztatuko eta epaituko dira. Arrakasta lortzen duten enpresak publikoki onartuak izango dira.

Ingurumena Kudeatzeko Sistema ez da helburua, industria-jarduerak, produktuek eta zerbitzuek ingurumenean sortutako eragin kaltegarria murrizten eta, ahal izanez gero, desagertarazten lagunduko digun kudeaketa-tresna da, ez da egindako akatsak zuzentzeko tresna.

Ikus informazio osagarria:

ISO 14001i buruzko IHOBE eskuliburua: Ezartzeko eragiketa.

IHOBE-Line-n bidez eskura dezakezu (900 15 08 64)

Ingurumenaren babesa eta garapen jasagarria zure ardura ere badira, bai enpresa handia izan, bai enpresa txikia izan, bai produktioko edo zerbitzuetako enpresa izan. Pertsona guztien zeregina eta etorkizuneko belaunaldiei begira dugun eginbeharra izateaz gain, ingurumen-kudeaketa diru-iturri izan daiteke, produktu, zerbitzu eta merkatu berrien bidez. ISO 14001ek eta beste hainbat tresnak itxuratu egingo dituzte politika publikoa eta merkatuak. Gaur egun, ISO 14001en araberako Ingurumena Kudeatzeko Sistema norberaren borondatez jartzen da martxan. Baina, agian, etorkizunean nahitaezkoa izango da, kontsumitzaileek eta bezeroek hala eskatuta.



Zer da EMAS?

Bestalde, Europako Erkidegoak borondatezko parte-hartzea bultzatzeko araudi bat onartu zuen (761/2001, 2001eko apirilaren 24an argitaratu zena). Araudi horren helburua EMAS II izeneko Ingurumena Kudeatzeko Sistemaren bidez ingurumenaren aurrean erakundeek zuzenago jardun dezaten bultzatzea da.

ISO 14001 araua oinarri hartzen duen ingurumena kudeatzeko sistemaren ziurtagiria EMAS II Araudira jo aurretik

eman beharreko pausoa da. Horrenbestez, ISO 14001 arauaren arabera ziurtagiria lortzen duen enpresak Araudira jo dezake, eta ingurumen-behartzai-leak Arauaren eta Araudiaren baldintzen artean dauden aldeak egiaztatzea baka-

rrik faltako luke ingurumen-adierazpenari balioa emateko.

Ondoren, Europako eskemaren eta ISO 14001 arauaren arabera ziurtagiriaren arteko alde nabarmenenak aipatuko ditugu.

EMAS II ARAUDIA

- Europa mailan aplikatzen da
- Egiaztatzailea
- Ingurumenaren Adierazpen publikoa

ISO 14001

- Nazioartean aplikatzen da
- Auditorea
- Kanpo-kontsulten kudeaketa

ISO 14001 martxan jartzeko aldeko arrazoiak!

Dagoeneko enpresa askok lortu dituzte etekinak –ekonomiaren aldekoak eta erakunde-mailakoak– ISO 14001 martxan jarrita, eta irudia hobetu eta fama handiagotu ere egin dute.

ISO 14001 martxan jarri izanari esker lortutako etekin ekonomikoak, ekoizpen garbiaren ikuspuntu prebentibotik begiratuta:

Enpresa	Sektorea	Jarduera	Neurriak	Etekinak
Fundiciones Gabiria, S.A.	Galdaketa	Hondakinak eta lehengaiak gutxitzea	Hondarrak gehiagotan erabiltzen dira berriro	18.210 euro/urteko
Kide, S. Coop.	Isolamendua	Metilen kloruroaren kontsumoa gutxitzea	Zikinkeriak tutuerian sortutako ikadurak gutxitzeko presio altuko injehtagailuak erabiltzea	48.081 euro/urteko
Bellota Herramientas, S.A.	Erreminta	Lehengaien kontsumoa gutxitzea eta erregai gisa fuel-oila erabili beharrean gas naturala erabiltzea	Tenplaketa-labe berria	84.800 euro/urteko

Ingurumena Kudeatzeko Sistemaren etekinak ISO 14001en arabera

Ingurumena Kudeatzeko Sistema martxan jartzeak abantaila eta etekin asko ekartzen dizkio enpresari, ingurumen-jokabideak enpresarekin lanean aritzen diren alde interesatuen erabakietan eragina izan dezakeela kontuan hartuta. Alderdi interesatu gisa enpresaren ingurumen-jokabidearen eragina jasan duen edo interesa duen edozein pertsona edo

talde da. Beraz, argi dago talde hori askotarikoa dela. Besteak beste, ondorengoak izan daitezke talde horretakoak:

1. Akziodunak eta inbertitzaileak.
2. Bezeroak.
3. Langileak.
4. Administrazioa (udalak, gobernuko ikuskatzaileak...).
5. Finantza-erakundeak eta aseguru-konpainiak.
6. Elkarreak (bizilagunak, ekologisten taldeak eta kontsumitzaileen elkarreak).
7. Banatzaileak.

ISO 14001en bidez baliabide gutxiago kontsumi ditzakezu eta emaitzak hobetzakezu

Ingurumenari buruzko arautegia betetzeko hasierako bultzadaren ondoren, urte-tik urtera, ingurumena etengabe hobetzeko prozesuak aukera ugari izaten ditu hondakin, emisio eta isurpen poluitzaileak jatorrian gutxitzeko, hau da, ekoizpen-prozesuan kontsumitutako lehengaien eragingarritasuna areagotu egiten du. Azken batean, gastuak aurrezten dira eta emaitzen kontuan zuzenean islatzen da

hori. Horrenbestez, Kide, S. Coop. Enpresak ingurumen-gastuak murriztea lortu zuen ziurtagiria lortu zuenetik bi urtera, eta Industrias Juno, S.A., berriz, aurrezten hasi zen sistema martxan jarri zuenetik lau urtera.

ISO 14001ek prozesuen eta produktuen kalitatean eragin positiboa du

ISO 14001en barruan dauden ingurumenaren hobekuntza ugari ondorio zuzena dute prozesuen eta ekoiztako produktuen kalitatea areagotzean. Halaber, prozesuekin lotuta ingurumen-adierazleak erabiltzeak ere hobetu egiten du "prozesuen kudeaketa".

ISO 14001ek herri- eta ingurumen-administrazioarekin dituzun harremanak hobetu egiten ditu

Ingurumena Kudeatzeko Sistemak konfiantza ematen dio Administrazioari. ISO 14001 lortzen denetik aurrera, enpresaren eta administrazioaren arteko komunikazioa areagotu egiten da pixkanaka-pixkanaka, eta, denborak aurrera egin ahala, askotan negoziatorako bideak egonkortu eta areagotu egiten dituen konfiantzako harremana sortzen da.

ISO 14001ek langileak motibatu egiten ditu

Gure ingurua, hau da, ingurumena, guztiona da. Ingurumena hobetzea ez da enpresako akziodunen edo zuzendaritzaren ondarea. Langileak Ingurumena Kudeatzeko Sistemaren parte hartzeak, ingurumen-jardueretan baino, eguneroko lanean motibazioa bultzatzea dakar. Horrenbestez, Kide, S. Coop. eta Fuchosa, S.A. enpresek ISO 14001 ezarri ondoren langileen motibazioaren aldetik izandako etekinak hondakinak murrizteagatik eta ekoizpen garbiagatik aurreratutako mila euroak baino askoz ere gehiago izan zirela baieztatzen dute.

ISO 14001, ingurumenaren araudi berriak betetzeko

Administrazioek enpresentzako ondorio garrantzitsuak dituzten ingurumen-araudi berriak bultzatzen dituzte. Araudiaren barruko baldintza berriak detektatzea ISO 14001en eskakizunetako bat da eta horrek lehiakor izaten uzten du; izan ere,

ingurumenari buruzko lege berriei aurre hartzen zaie eta araudia finkatutako epean aplikatu daiteke.

ISO 14001, bezeroaren baldintza

Sektore aurreratuekin, esate baterako, automozioarekin eta elektronikarekin, lotura duten enpresa-talde ugari daude, eta talde horiek ISO 14001 ziurtagiria lortzeko epe jakinak jartzen dizkiete beren banatzaileei. Besteak beste, Ford eta General Motors horretan ari dira. Beste batzuk banatzailearen ingurumen-kudeaketa baloratzen ari dira. Gaur egun, Euskal Autonomia Erkidegoan, ISO 14001en inguruan, banatzaileen enpresen ekimenak martxan daude: adibidez, EVE Taldea; ACB, S.A.; ITP, S.A.; CAF, S.A.; Mercedes Benz España, S.A.; Fagor Electrodomésticos, S. Coop.... Horiei ingurumenarekin lotutako eta ISO 14001 ziurtagiria duten ETEek banatzaileei egindako dozenaka inkesta eta txeko gehitu behar zaizkie.

ISO 14001ek gizartearen eta kontsumitzaileen aurrean zure irudia hobetzen du

ISO 14001 ziurtagiria eskuratu duzula eta ingurumenarekin lotuta lortu duzuna inguruan (bizilagunei...) jakinaraziz gero, bizilagunekin duzun harremanetan integrazioa hobea eta konfiantza gehiago lor dezakezu. Irudi hori mantendu egin daiteke, izan ere, ISO 14001ek ere ingurumenarekin lotura duten istripuak sistematikoki aurreikusten laguntzen du.

ISO 14001, merkatu berrietako lehiakideen aurrean duzun abantaila

Ziurtatutako Ingurumena Kudeatzeko Sistemak bezero izan daitekeen edonori konfiantza ematen dio, eta konfiantza merkataritza-harreman egonkorraren oinarria da. Halaber, gaur egun, gastuen, kalitatearen eta entregatze-epene arteko aldeak oso txikiak dira kasu askotan; beraz, beste faktore batzuk (esate baterako, ISO 14001) "aurkezpen-gutunak" dira merkatu berrietan, eta faktore horiek



lehiakideen aurrean balantza zure aldera ekar lezaketek.

ISO 14001ek laguntza eta diru-laguntza publikoak eskuratzeko bidea errazten du

Euskal Autonomia Erkidegoko diru-laguntza publikoetako programa batzuek positiboki baloratzen dute laguntza eskatzen duten inbertsioak ISO 14001 Ingurumenaren Ekintza Planetik etortzea. Inbertsioak eta enpresa berriak (Arrisku Kapitala...) sustatzeko beste programa publiko batzuek uste dute enpresaren izaera lehiakorraren baieztapena dela ISO 14001, eta alde horretatik ere aintzat hartzen dute.

INDUSTRIAS LANDU, S. COOP.

Egia esan, gure bezeroek ez ziguten eskaera berezirik egin ISO 14001 Ingurumenaren Ziurtagiria lortzeko, baina, ingurumenarekin lotura duten gaietan dugun sentikortasunak bultzatuta, ziurtagiria lortzearen aldeko apustua egin genuen eta ISO-14 Taldean parte hartu genuen.

Ingurumenaren eta Ekoizpen Garbiaren Ziurtagiria mekanizatuaren sektorean eta gure lehiakideekin alderatuta Industrias Landu, S. Coop.ren BEREIZGARRIen artean bat gehiago besterik ez da.

Hala ere, gure enpresan Ingurumena Kudeatzeko Sistema martxan jartzeak ardura eta ahalegin handia eskatu dizkigu, batez ere administraziozko izapideak bideratzeko garaian; izan ere, erreferentzia gisa, Arauarentzat enpresa handiak eta txikiak berdinak dira. Beraz, guretzat eta gainerako enpresa txikientzat oztopo garrantzitsu bilaka liteke alde hori.

ISO 14001ek finantza-zerbitzu eta aseguru-zerbitzu onuragarriak lortzen lagunduko dizu

Gaur egun, ingurumen-irizpideak barruan dituzten finantza-zerbitzuak eta aseguru-zerbitzuak hazten ari dira pixkanaka-pixkanaka. "Due diligences" edo enpresen salerosketan, maileguetan, aseguruetan... dagoeneko, Ingurumena Kudeatzeko Sistema arriskuen murrizketa gisa hartzen dute, eta, beraz, enpresetan ere eragiten duen etekina da. Horrela, nazioarteko talde batek orain dela gutxi euskal sarrailegintza-enpresa bat erosteko

funtsezko irizpidea bere ingurumen-kudeaketa izan da. Halaber, "Ingurumen Arriskuen Pool Espainiara" enpresei ISO 14001 dela eta aseguruaren primetan hoberia ematea sustatzen ari da.

ISO 14001, kontratazio publikoetan balorazio hobea

Administrazio eta sozietate publiko batzuek (IHOBE, S.A., Ingurumen Ministerioa...), dagoeneko, lehiaketa publikoetan esleitzeko irizpide gisa ISO 14001i balioa ematen diote, eta % 5-15eko balioa du.

Kontratazio publikoa gutxi gorabehera BPGaren % 15 dela kontuan hartuta eta Europako Batasuneko politikak ingurumen-irizpideak integra daitezela bultzatzen ari direla ikusita (Ingurumen Ekintzaren 6. Esparru Programa eta kontratazio publikoetan inguru hiritarraren garapen jasangarria sartzeko esparru komunitarioari buruz Arteztarau bat ateratzeko proposamena), ISO 14001en aldeko apustua egiten duten enpresen egoera hobea izango da; izan ere, datuen bidez justifikatu eta erakutsi ahal izango dute beren zerbitzuen edo produktuen ingurumen-ontasuna.

Hala ere, ISO 14001en konpromisoak **ahalegina** egiteko **eta esku** hartzeko ere eskatzen du:

- **Ekonomikoak:** ingurumenaren araudira egokitzeko lehen inbertsioa delako eta, hasierako gastuak –aholkularitza, laginketak eta ziurtagiriak– eta mantentze-lanetako gastuak eragiten dituelako.
- **Giza baliabideak:** prozesuaren buru izateko, ingurumenaren alorreko helmugak martxan jartzeko eta Ingurumena Kudeatzeko Sistema mantentzeko. Baliabide osagarrien faltak lan guztiak jende berak egin behar izatea ekartzen du, eta horrek sistemaren erabilgarritasuna arriskutan jartzen du.
- **Barruko parte-hartzea:** Kalitatea segurtatzeko sistemetan –ISO 9000– edo Kalitate Osoan (EFQM eredua) bezala, enpresako langile guztiak parte hartzeak segurtatuko luke ISO 14001ek behar bezala eta enpresarentzako baliagarri den eran funtzionatzea. Parte-hartze hori komunikazioaren, trebakuntzaren eta sensibilizazioaren bidez lortzen da.
- **Zuzendaritzaren konpromisoa mantentzea.** Enpresak erronka ugari egin behar dio aurre, esate baterako, ondorengoei: egoera ekonomikoari, nazioarteko bihurtzeari, ISO 9000: 2000ra egokitzeari, laneko arriskuei, giza baliabide egonkor eta kualifikatuak bilatzeari... Erronka horiek dagoeneko erabakita egon daitekeen ISO 14001 ezartzeko lehentasuna atzera bota dezakete. Horregatik, erabakigarria da zuzendaritzak ISO 14001 ziurtagiriak enpresarentzat dakarren balio estrategikoaren inguruan hausnarketa egitea eta horren arabera erabakitzea.

ISO 14001 ETEetan martxan jartzearen etekinak

Barruko etekinak	Kanpoko etekinak
Energia eta baliabideak aurrezteak	Administrazioarekin harreman gehiago izatea
Prozesuetan gastuak murriztea eta eragingarritasuna areagotzea	Bankuen eta aseguru-konpainien aurrean irudi hobea izatea
Langileak motibatuko egotea	Irudi publikoa hobetzea
Barne-komunikazio hobea izatea	Kontratu publikoak lortzeko abantailak izatea
Prozesuetan kalitatea hobetzea	Bezeroek konfiantza gehiago izatea eta merkatu berrietan "aurkezpen-gutuna" hobea izatea

Ingurumen-Legeria betetzea
Ingurumen-istripuak prebenitzea

ISO 14001: Euskal Autonomia Erkidegoan ingurumen-ekimen aurreratuak

Euskal ekimen publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzak jardueraren sektore nagusietan ISO 14001 sustatzen eta horrela lehiakortasunari eusten laguntzen du.

8

ISO 14001, ISO-14 Taldeen sektoreetako lan-taldeetan: 100 enpresa baino gehiago

ISO 14001 sektoreetako taldeen barruan jartzeak lan-taldeen sinergia aprobetxatzeko aukera ematen du eta ondorengo aprobetxatzen da: enperenziaren trukea, trebakuntza, erritimo komuna, arazo komunaren ebazpena...

Euskal Autonomia Erkidegoko sektore produktibo garrantzitsuenak, hein handian etorkizuneko IPPC arteztarauaren eragina jasango dutenak, altzairu-fabrikak, galdategiak, kimika-lantegiak, papertegiak, automozio osagaiak, azaleko tratamenduak, makina-erreminta, burdinolak eta elektronika dira. Guztiak ISO 14001 martxan jartzen ari dira ISO-14 Taldeen barruan, IHOBE, S.A. Ingurumena Kudeatzeko Sozietate Publikoaren laguntzarekin eta Eusko Jaurlaritzaren "1999-2001 Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Kudeaketa Sustatzeko Programaren" barruan ari diren enpresa-erakundeen laguntzarekin. Gaur egun, ISO 14001 martxan jartzen ari diren enpresen % 25 ISO-14 Taldeen ekimenaren bidez egiten ari da, eta, dagoeneko, 100 enpresa ari dira talde horietan lanean.

ISO 14001 martxan jartzen ari diren artean liderra automozio osagaien sektorea da. Sektore horrek 4 talde eta 20 enpresa ditu eta ACICAE automozio klusterrak eta MCC korporazioak dinamizatzen dute. Hurrengo galdaketaren sektorea da (4 talde eta 17 enpresa) eta Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Urzailen Elkarteak (AFV) dinamizatzen du. Hirugarrena makina-erremintaren sektorea da (2 talde eta 9 enpresa) eta INVEMA Fundazioak sustatzen du. Laugarrena siderurgia da (2 talde eta 8 enpresa) eta Altzairu eta Ingurumen Elkartea da burua. Beste hainbat ekimen ere martxan daude, eta, besteak beste, ondorengoek bultzatzen dituzte: Bizkaiko Enpresa Kimikoen Elkarteak (AVEQ), Elektronikaren Klusterra (GAIA), Paperaren Klusterra (CLUSPAP) eta Eskualdeko Garapen Agentziak (GOIE-KI eta UGGASA).

ISO-14 Taldeen ekimen publikoan parte hartzen ari diren enpresek finantza-laguntza, IHOBE, S.A. ren aldetik laguntza tekni-

koa, lehenasunezko marketina eta izapideekin lotutako oztupoak gainditzeko administrazioarekin arintasun gehiago izan dituzte.

Hondakin kudeatzaileek eta birziklatzaileek ISO 14001-en eta EMAS IIen aldeko apustua egin dute

Hondakinak kudeatzen eta birziklatzen aritzen diren enpresak lehenak dira ingurumen-administrazioari eta bere bezeroei konfiantza transmititzeko garaian.

Orain dela urte batzuetatik, ekoindustria osatzen dutenei bertan sartzeko baimena lortzeko edo baimenak berritzeko Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak jartzen dien ezinbesteko baldintza Ingurumena Kudeatzeko Sistema ezartzea eta ziurtagiria izatea da. Horren eraginez, bertan sartzten diren gehienek (ACLIMA Ingurumen Clusterreko partaide dira) beren gain hartzen duten ingurumen-konpromisoarekin batera eta industria-jarduera honetan dagoen ingurumen-sentsibilitateari lotuta, sektore hori sistema martxan jarri dutenen artean lider bilakatu da; izan ere, enpresen % 30ek dagoeneko lortu du ISO 14001 ziurtagiria eta industria asko EMAS II ziurtagiria lortzeko prozesuan murgildurik daude. Horrez gain, beste hainbat nazioartean onartutako Global Reporting Initiative GRIren jarraibideak kontuan hartuta ingurumen-memoriak egiten ari da.

Euskal enpresa handiek beren banatzaileei tira egiten diete ISO 14001-en bidez

Nazioartean automozio enpresa handiek (Ford, General Motors...) eta elektronikakoek ISO 14001 ziurtagiriaren ondorioz dituzten eskakizunak direla eta, Euskal Autonomia Erkidegoan zenbait ekimen martxan jarri dira eta gehienak IHOBE, S.A.k koordinatzen ditu.

Batetik, EVE taldeak hornitzaileak tiratzea eta, bestetik, ingurumen-ziurtagiria eskuratu ondoren ACB, S.A.; CAF, S.A.; Fagor Electrodomésticos, S. Coop.; ITP, S.A. eta Mercedes Benz, S.A. enpresek ingurumenaren aldetik konpromisoa hartzea, oro har, horiek biak dira ingurumen-eragile nagusiak euskal enpresentzako.

Eraikuntzaren sektorean ISO 14001, kontratazio publikoetan bereiztea

Kontratazio publikoak egiteko garaian, geroz eta gehiago ari dira ingurumen-irizpideak (ISO 14001...) sartzen. Euskal Autonomia Erkidegoan, IHOBE, S.A. Ingurumena Kudeatzeko Sozietate Publikoak (urteko aurrekontua 18 milioi eurokoa) dagoeneko sartzen ditu eta etorkizunean 9 milioi euroko aurrekontua duen Gasteizko Udalak (ingurumen saila) ere bai. Estatuan, Ingurumen Ministerioaren kontratazioetan hartzen da kontuan.

Horri guztiari eraikuntza-sektoreari diru-laguntzak emateko dauden programa espezifikoak (ERAICAL programa) gehitu behar zaizkio. Horrenbestez, Euskal Autonomia Erkidegoaren BPGren % 6,5 osatzen duen jarduera lehiakor horretan ziurtagiriak areagotu egin dira.

Euskal ETEentzako Ingurumen Diagnostikoak eta Ekintza Planak: Ekoscan

ISO 14001 martxan jartzeak aurrez kontzientzia-maila handia dagoela eta ekonomia mailan eta enpresan funtseko den jendearen arduraren aldetik baliabideak eskura daudela esan nahi du. ETE askok ingurumen aldetik hobetzeko lehen pausoa bakarrik eman nahi izaten dute. Ekoscanek eskaera horri ingurumen-diagnostikoaren bidez erantzun nahi dio eta diagnostiko horrek ekoizpen-prozesuen sarreraren eta irteeren analisi kualitatiboa eta ekonomikoa barne hartzen ditu. Ekoizpen-prozesuaren barruan, ingurumen-adierazleak izatea, hobetu beharreko guneak lehenestea, "ideia-jasa" tekniken bidez hobetzeko proposamenak biltzea, aipatutako hobekuntzen aukeraketa egitea eta ondoren bideragarritasun tekniko eta ekonomikoa eta ingurumenaren aldeko bideragarritasuna aztertzea eta, azkenik, enpresek berek, epe motz eta ertaineko helburu neurgarriekin, ekintza-plan espezifikoak martxan jartzea.

Euskal ETEen artean, 130 enpresa inguruk jarri dute martxan Ekoscan plana eta lortutako gogobetetze-maila 10etik 7,8 puntukoa izan da batez beste. Guztira 30

orduko arduraldia izan dute (enpresa batean ISO 14001 martxan jartzeko, berriz, 500-1500 ordu behar dira) eta proiektu bakoitzak lau hileko iraupena izan du. Enpresak ingurumenaren egoera eta araudia jakitea, adierazleak finkatzea, hobekuntza-taldeetan enpresako maila guztiak inplikatzeko, epe motzera enpresa bakoitzak batez beste 2 milioi pezeta aurrezteko eta Eusko Jaurlaritzaren eskutik Ekoscan Diploma jasotzeko dira Ekoscan Zerbitzuaren erabilzaileek dituzten abantaila nagusiak. Zerbitzu horretan parte hartzen duten enpresa gehienek ingurumenaren ikuspegi integraletik eta prebentibotik zer esan nahi duen ulertu dute, hau da, ekoeragingarritasunaren, ekoizpen garbiaren edo hondakinak gutxitzearen aldetik zer esan nahi duen. Horrenbestez, % 10, Ekoscan amaitu ondoren, ISO 14001 martxan jartzen hasi da eta batzuek, dagoeneko, lortu dute ziurtagiria (esate baterako, ONA Electroerosión, S.A.k).

ISO 14001en trebatzea: inbertsio errentagarria

Euskal merkatuan, eskaera guztiei erantzuteko trebakuntzako hainbat ekimen daude: Akreditatutako Ziurtagapen Organismoek barruko araudien eta ikuskaritzen inguruan antolatzen dituzten ikasta-

COMPOSITES LEGAZPI, S.L.

Composites Legazpi, S.L. enpresan, Ekoscan plana amaitu ondoren, hauxe lortu da:

- Enpresaren ekoizpen-jarduerarekin lotutako ingurumen-alde nagusiak identifikatzea.
- Jarduteko aldeak lehenestea.
- Langileak hobekuntza-taldeetan sartzeko.
- Proposatutako hobekuntzen alde ekonomikoak, teknikoak eta antolatzaileak aztertzea.
- Ingurumen-jarduerarako plana definitzea.

roak; "ISO 9000tik ISO-14001era" moduluarekin, Euskalit Kalitatea Sustatzeko Fundazioa; Euskal Merkataritza Ganberen trebakuntza-zikloak; alde operatiboen inguruan (legegintza-baldintzak identifikatzea eta eguneratzea, gai arriskuak biltegitratzea, langileak motibatzea, ingurumen-adierazleak finkatzea... 2001. urtean 260 enpresak hartu dute parte eta batez beste gogobetetze-maila 7,8koa izan zen) IHOBE, S.A. Sozietate Publikoak antolatzen dituen ISO 14001 lan-taillerrak. Horiei guztiei esker, euskal enpresetako zuzendariak ISO 14001en eta, oro har, Ingurumena Kudeatzeko Sistemen alde operatiboak ezagutzeko eta horien inguruan sakontzeko aukera dute.

"Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumenaren Esparru Programa 2002-2020": ISO 14001 eta EMAS lortzeko behin betiko bultzada

Giza jarduera guztiek (industria, garraioa, lehen sektorea, kontsumoa...) eta ingurumeneko arazo guztiek (berotegi-efektua, hondakinak, gai kimikoen hedapena, uren kalitatea...) ingurumenaren aldetik dituzten helburuen adostasuna eta Euskal Autonomia Erkidegoko babeserako tresnak epe luzerako ingurumen-estrategiaren ardatz nagusi dira. Estrategia horrek "EAEko Ingurumenaren Esparru Programa 2002-2020" izena du eta Euskal Administrazioa ari da sustatzen. Programa hori EAEk industria eta enpresa sektoreetan zehaztu ondoren, tartean dauden eragile guztiek bat etorri beharko dute, dagoeneko badauden babeserako tresna osagarrien bidez ISO 14001i eta EMASi bultzada emateko.



ISO 14001

Ingurumena Kudeatzeko Sistema

Saia zaituz hori lortzen, pausoz pauso, zure erritmora



10

Hasiera

Ez dago era estandarrik. Sistema martxan jartzeko prozesua enpresaren tamainaren, jardueraren, produktuen eta zerbitzuen eta horiek guztiak kudeatzeko eraren araberakoa da.

Erabili sen ona!

1. Argi izan ezazu proiektuaren helburua

Ingurumena Kudeatzeko Sistema Europako bulego zentralak hala eskatu dizulako jarri behar al duzu?

ISO ziurtagiria ezinbestekoa al da zure enpresak merkatu berrietara sartzeko aukera izan dezan?

Aurreztu egin nahi duzu edo etekinak eskuratu nahi dituzu?

Ingurumena Kudeatzeko Sistema egungo zure kudeaketa naturalaren hedapena dela eta etorkizuneko inbertsioa izango dela ziur al zaude?

2. Azter ezazu zein baliabide behar dituzun

Ingurumena Kudeatzeko Sistema martxan jartzeko, denbora, ezagutzak, giza baliabideak, informazio osagarria, kanpoko aholkularitza, enpresako guztien gogoia eta zure baliabide ekonomikoak ere behar dira.

3. Lor ezazu nagusiaren babesa

Mailarik goreneko zuzendaritza ISO 14001 Ingurumena Kudeatzeko Sistema martxan jartzeko proiektuan sar dadin eta babes dezan lor ezazu.

Ikus informazio osagarria:

Hondakinak minimizatzea errentagarria da. Zure enpresako kudeatzaileari hori frogatzeko bost arrazoi.

Dohain eskura dezakezu IHOBE-Line-n bidez (900 15 08 64).

4. Motibaturik dauden langileak sar itzazu

Hasieratik sar eta integra itzazu zure ingurukoak. Osa ezazu talde lehiakorra. Erabili langileek dakitena eta haien esperientzia. Har ezazu behar duzun denbora jarduteko, ikasteko, gaitasuna lortzeko eta esperimintatzeko.

5. Liderra izenda ezazu

Proiektuari bizia emango dion koordinatzaile dinamikoa bilatu eta izendatu, proiektua eragingarri egin dezan eta barruan susta dezan.

6. Bila eta aurki ezazu behar duzun informazioa

Hainbat sektoretan ingurumenaren babesari buruz liburu asko argitaratzen dira. Liburu horiek erabilgarriak izan daitezke informazio-iturri gisa eta proiektuarekin nola hasi erabakitzen lagun diezazukete. Bila ezazu informazioa Interneten. Legearen inguruko baldintzei, ekoizpen garbiri eta ekintza-planei, kasu praktikoei, aholkuei eta abarri buruzko informazioa aurkituko duzu.

7. Jar zaituz ingurumenaren alorreko aholkulariekin harremanetan eta eskaiezaiezu diru- laguntzei eta beste laguntza-motei buruzko informazioa

Kanpoko laguntza erabilgarria izan daiteke Ingurumena Kudeatzeko Sistema martxan jartzeko pauso edo faseak garatzeko

OFITA, S.A.M.M.

Gure lema hau da: "Lehen aldian eta gainerako guztietan bezeroaren itxaropenak gainditzea". Horregatik, faktore bereizgarri gisa, beti egin izan dugu kalitatearen eta berrikuntzaren aldeko apustua, eta diseinuaren kalitatea, produktuaren kalitatea eta zerbitzuen kalitatea eskaini izan ditugu. Hori guztia Ingurumena Kudeatzeko eta Kalitateko gure Sistemari sartu dugu.

garaian, hau da, hasierako ebaluazioa egiteko eta enpresaren jardueraren ingurumeneko alde garrantzitsuak, lege aldetik dauden baldintzak, prozeduraren-garapena eta abar identifikatzeko garaian.

Administrazio askok diru-laguntzak eskaintzen dituzte ingurumena kudeatzeko sistemaren inguruko aholkularitzak sortutako gastuak ordaintzeko.

8. Ingurumenaren alorrean enpresaren barruan behar den trebakuntza planifika ezazu

Ingurumenaren kudeaketa zure jarduerak sistematizatzeko tresna da. Ingurumenaren alorreko sentsibilizazioa eta trebakuntza oso garrantzitsuak dira. Ondorengo helbideetan ingurumenaren alorreko sentsibilizazioari eta trebakuntzari buruzko programa publiko zehatzak daude:

<http://www.ihobe.net>
<http://www.canalmedioambiental.com>
<http://www.spri.es>
<http://www.ictnet.es>
<http://www.aclima.net>

ELMET, S.L.

Gure kalitate-politika bezeroak gustura izatea da, eta, horretarako, beren hondakinak kudeatzen ditugu eta, lehengai naturalak erabiltzea galaraziz, natura kontserba dadin laguntzen dugu. Elmet, S.M.k ingurumenarekin duen konpromisoa dela, ISO 14001en bidez Ingurumena Kudeatzeko Sistema martxan jarri genuen 1999an.


Non lortu laguntza

Eskura dauden finantziario-aukerei eta proiektu pilotuei buruzko informazio osagarria lortzeko, ondorengo erakundeekin jar zaituzke harremanetan:

IHOBE-Line (doako telefonoa)	900 15 08 64
Eusko Jaurilaritza	www.euskadi.net
SPRI	www.spri.es
IHOBE, S.A.	www.ihobe.net
Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila	www.euskadi.net/laeis
Ingurumen Ministerioa	www.mma.es
Zientzia eta Teknologia Ministerioa	www.mcyt.es

ISO 14001

teoriatik praktikara



Prozesua hasi da eta 18 pauso geratzen dira Ingurumena Kudeatzeko Sistema lortzeko.

Ingurumena Kudeatzeko Sistemaren ziurtagiria lortzeko bidea hainbat fasetan edo etapatan banatuta dago: **P=** Ingurumena Kudeatzeko Sistema **planifikatzea**, **R=** egitea, **C=** ingurumen-jarduera **egiaztatzea** eta ebaluatzea, **A=** etengabe hobetzeko **jardutea**.

Kalitatea kudeatzeko sistema duten enpresek, sistema horren bidez eskuratutako esperientziaren bidez, abantaila izango dute.

Ingurumena Kudeatzeko Sistema planifikatzea: lehen 5 pausoak

1. pausoa: Zure enpresarako ingurumen-politika garatzea

Ingurumen-politika enpresaren Zuzendaritzak prestatutako dokumentu publikoa da eta bertan ingurumenaren aldetik enpresak hartutako konpromisoak deskribatzen dira. Dokumentu horrek ondorengo ziurtatzen du:

- Maila maximoan definituta dago.
- Dokumentatuta, ezarrita eta eguneratuta dago.
- Ingurumen-helburuak eta -helmugak finkatzeko eta berrikusteko oinarri gisa balio du.
- Etengabe hobetzeko eta prebenitzeko konpromisoa da.
- Lege eta araudi aldetik dauden baldintzak betetzeko ardura bere gain du.
- Jendeak eskuratzeko aukera du.

Politikaren barruan, askotan enpresaren jardueren hainbat alde sartuko dira. Esate baterako, ondorengo konpromisoak sartuko dira:

- Ingurumenaren inguruko legea eta araudia betetzea.

- Isurpen poluitzaileak eta hondakinen ekoizpena ahalik eta gehien murriztea eta baliabideak kontserbatzea.
- Lehengaiak ustiatzearen ingurumen-inpaktua kontrolatzea.
- Garapen berrien ingurumen-inpaktua ahalik eta gehien murriztea.
- Produktuak horiek ekoizteko, erabiltzeko eta botatzeko garaian ingurumen-inpaktua ahalik eta gehien murrizteko moduan diseinatzea.
- Jarduera, produktu eta zerbitzu berrien ingurumen-inpaktua aurretik ebaluatzea.
- Langileen artean, ingurumenarekin lotuta, erantzukizun-zentzua sustatzea.
- Istripuz gertatzen diren gaien eta energiaren isurpenak galaraztea.
- Herri-agintariei larrialdi-prozedurak martxan jartzeko eta eguneratzen laguntzea.
- Bezeroei, produktuen manipulazioarekin, erabilerarekin eta deuseztapenarekin lotuta, ingurumenari buruzko informazioa ematea.

ISO 14001 Ingurumena Kudeatzeko Sistema martxan jartzeko 18 pauso

Hasiera

P = Planifikatzea

1. Ingurumen-politika definitzea.
2. Ingurumenaren alorreko aldeak identifikatzea.
3. Lege aldetik dauden baldintzak eta beste baldintza batzuk.
4. Ingurumen-helburuak eta -helmugak definitzea.
5. Ingurumena kudeatzeko programa definitzea.

R = Egitea

6. Egiturak eta ardurak.
7. Laneko trebakuntza, sentsibilizazioa eta lehiakortasuna.
8. Komunikazioa.
9. Ingurumena Kudeatzeko Sistemaren dokumentazioa.
10. Dokumentazioaren kontrola.
11. Lanen kontrola.
12. Larrialdi-plana eta erantzuteko gaitasuna.

C = Egiaztatzea

13. Jarraipena eta neurketa.
14. Adostasun-eza, ekintza zuzentzailea eta ekintza prebentiboa.
15. Erregistroak.
16. Ingurumena Kudeatzeko Sistemaren ikuskaritza..

A = Jardutea

17. Zuzendaritzak berrikustea.
18. Ingurumena Kudeatzeko Sistemaren ziurtagiria.

- Enpresaren kontratistek eta banatzaileek ingurumena kudeatzeko arauak aplikatzen dituzten sustatzea.
- Interesa duten aldean artean elkarriketa eta komunikazioa izatea.

ZORELOR, S.A.

Ingurumena errespetatzeko interesa zela eta, Zorelor, S.A.k Ingurumena Kudeatzeko Sistema martxan jarri zuen eta, horretarako, ingurumen-politika formulatzen eta bete dadin bermatzen duen UNE-EN ISO 14001 araudia jarraitu zuen. Orduetik, ingurumen-inpaktua gutxitzeko jarduerak egiten aritu gara. Horien artean hauek nabarmen ditzakegu: arazketa-sistema martxan jartzea, energiaren kontsumoa jaistea, paperaren kontsumoa jaistea eta birziklatzea, atmosferara egindako isurpenak gutxitzea, hainbat hondakin biziklatzea eta berritzaile biltzea...

2. pausoa: Azter ezazu ingurumenaren aldetik enpresaren egoera

Hasieran ingurumenaren ebaluazioa egitea komeni da, Ingurumena Kudeatzeko Sistema lantzen hasteko eta ondoren martxan jartzeko. Lan hori egiteko, industria- jarduera eta jarduerarekin lotura duten ingurumen-inkaktuak ongi eza-gutu behar dira eta arreta handia izan behar da.


Horrek esan nahi du ingurumen-irizpideak kontuan hartuta enpresaren jarduera guztien azterketa sistematikoa eta sakona egin behar dela. Ingurumenaren aldetik, enpresaren edo erakundearen egoeraren uneko argazkia egitea bezala da. Horrek ingurumena kudeatzeko programa solidoa garatzeko oinarri gisa balioko du eta helburu eta helmuga argiak finkatzen lagunduko du.

Ebaluazio horren barruan ondorengo sartzen da:

- Ohiko eta ezohiko egoeran eta larrialdi-egoeran, enpresaren jarduerarekin, produktuekin eta zerbitzuekin lotura duten ingurumenaren aldeak identifikatzea.
- Poluzioa kudeatzeko jarduerak eta prozedurak.
- Instalazioetan izandako gertaerak eta larrialdi-egoerak.
- Ingurumenaren aldean ebaluazioa, garrantzitsuak direnak identifikatzeko.
- Ingurumen-legeria, aplikatzeko baldintzak eta zenbateraino betetzen diren.
- ISO 14001era zenbateraino egokitzen den.

Erakundearen jarduerarekin, produktuekin edo zerbitzuekin lotura duten ingurumeneko aldeak identifikatzeko eta ebaluatzeko ez dago metodo unibertsalik.

Ez dugu xehetasunekin denbora galdu behar, inpaktu garrantzitsuen ebaluazio kritikoa egin behar dugu.



Identifika itzazu ingurumenarekin lotura duten zure aldeak:

- *Isurpenak atmosferara.*
- *Isurpenak uretara.*
- *Hondakinen kudeaketa (arriskutsuak, geldoak eta hirikoak).*
- *Lurzoruaren poluzioa.*
- *Lehengaiak eta baliabide naturalak (ura, energia, erregaia) erabiltzea.*
- *Tokikoak diren eta era berean komunitateari eragiten dioten ingurumeneko beste auzi batzuk (zarata, usainak, ikuspen-inkaktu...).*

Identifikazioa egin ondoren, ebaluatu egin behar dira garrantzitsuak diren ala ez zehazteko. Ingurumenaren aldeak (isurpenak, hondakinak...) egoera normalean, ezohiko egoeran (garbiketak, purgaketak...) eta gertakari bereziak izaten direnean (istripuak eta larrialdi-egoerak) baloratu behar dira. Azkenik, behar bezala ebaluatutako aldeak idatzi egin behar dira.

Edozein jarduera ekonomikok ingurumen-inkaktuak du: globala eta lokala. Non lor dezakezu laguntza?

Euskal enpresen %45ek uste du ez duela ingurumen-inkakturik eragiten. IHOBE, S.A. ren laguntzarekin jakin ezazu non dauden zure alde nabarmenak. 900-15 08 64 doako telefonoan IHOBE-line Ingurumen Informaziorako Zerbitzuaren eta Instalazioan ingurumenaren doako aholkularitzaren bidez, zure aldeak identifikatzen lagunduko dizugu eta irtenbideak aurkitzeko orientabideak emango dizkizugu. Horrez gain, IHOBE, S.A. ren argitalpenetan (esate baterako, "Hondakinen mapa" edo "Enpresa eragingarriaren eskuliburua") proposatutako metodo errazak erabili eta aplikatu ditzakezu, trebakuntza-ikastaroak aprobetxatu ditzakezu, enpresei bideratutako zerbitzuak erabili ditzakezu eta, <http://www.ihobe.net> orriaren bidez, jakinaren gainean egongo zara.



ISO 14001

legetik harantzago



3. pausoa: Guk aldizka lege aldetik dauden baldintzen berri emango dizugu eta zuk bete itzazu... eta hobeto egin ezazu

Ingurumen-politikaren konpromiso garrantzitsuenetakoa ingurumenari buruzko legeak eta araudiak betetzea da.

Ingurumena Kudeatzeko Sistemak legea ohiko eta ezohiko egoeran eta istripuak gertatzen direnean betetzen dela bermatu behar du.

Enpresentzako interesa duen legeria lurraldearen arabera banaturik dago: Europa, estatua, autonomia eta herria.

Ikus informazio osagarria:

Euskal Industriarentzako Ingurugiro-Legeriaren Eskuliburu Praktikoa.
www.ihobe.net orrian eskura dezakezu.

Ingurumenari buruzko xedapen bereziak edozein dokumentutan agertzen dira, esate baterako, irekitze-lizentzian, aldaketa-lizentzian eta baimenetan, nahitaez bete behar direlako.

Batzuetan, zaila da enpresarekin lotura duten legeek jarritako baldintza guztien jakinaren gainean egotea, baina informazio erabilgarria leku askotan aurki dezakezu. Enpresei eragiten dien araudia ezagutzeko, enpresek berek hainbat zerbitzu erabil ditzakete, esate baterako, sektoreko elkarten babesa izatea, ingurumenaren legeak eguneratzeaz arduratzen diren kanpoko zerbitzu espezializatueta harpidedun egitea eta Ingurugiro Legeriaren Eskuliburu Praktikoa erabiltzea. Eskuliburu horren bertsio eguneratua IHOBE, S.A. Sozietate Publikoaren web orrian www.ihobe.net ikus dezakezu.

Ingurumen-legeriarekin lotura duten aldeak

Urak
Atmosfera
Arau orokorrak
Hondakinak
Natur Ingurunea
Soinua eta bibrazioak
Segurtasuna
Gai eta Prestakin Arriskutsuak

INDUSTRIAS JUNO, S.A.

Industriak Juno, S.A.k, gastuak aurrezteaz eta bere jarduerak sortutako ingurumen-inpaktua gutxitzeaz gain, ISO 14001 ziurtagiriaren bidez aplikatu dakigukeen ingurumen-legeria betetzen dugula egiazta dezakegu, eta horrek lasaitasuna ematen digu.

4. pausoa: Ingurumen-helburuak eta helmugak finkatzea

Ingurumen-helburuak ingurumen-politikaren ondorio dira.

Ingurumen-helmuga epe finko batean helburua lortzeko mugari partziala da. Aldian-aldean, Ingurumena Kudeatzeko Sistemaren helburuak eta helmugak deskribatu, jakinarazi eta eguneratu egin behar dira.

Enpresaren ingurumen-politikaren isla izan behar dute, poluzioaren prebentzioaren kontzeptua barne. Helburu horien barruan, ondorengo konpromisoak sar daitezke:

Ingurumen-helburuek eta -helmugek lotura argia eta erreala izan behar dute beren alde nabarmenekiko

- hondakinak eta baliabideen kontsumoa murriztea;
- ingurumenera egindako isurpen poluitzaileak gutxitzea edo desagertaraztea;
- produktuak berriro diseinatzea, produktuak ekoizteko, erabiltzeko eta deuseztatzeko garaian sortzen duten ingurumen-inpaktua gutxitzeko;
- langileen kontzientziazioa sustatzea eta kanpora begira komunikazioa hobetzea.

Helburuen eta helmugen ezaugarriak

- Jardueraren ingurumen-alde garrantzitsuenen arabera finkatzen dira, eta argi formulaturik egon behar dute.
- Ingurumen-jardueran benetako hobekuntza lortu behar dute eta aldi-aldi berrikusi, zuzendu eta egokitu behar dira.
- Ingurumen-politikarekin kontsekuentek, errealistak eta arrazoizkoak izan behar dute.

FUNDICIONES GABIRIA, S.A.

Fundiciones Gabiria, S.A.n Ingurumena Kudeatzeko Sistema martxan jarri ondoren, gure industria-jarduerak ingurumenean duen inpaktua zein den jakin ahal izan dugu, eta guztira 60 ingurumen-alde identifikatu dira. Horiek kontuan hartuta, Ingurumen Programan 5 helburu eta 9 helmuga finkatu ziren eta zuzentzeko jarduerak jarri ziren martxan. Jarduera zuzentzaile horien ondorioz, baliabide naturalen kontsumoan aurreratu egin dugu eta hondakinak eta isurpenak gutxitu egin ditugu.



5. pausoa: Era ezazu zure ingurumen-programa: nork zer, noiz, nola, zein baliabide erabiltita eta noizko egin behar duen

Ingurumena kudeatzeko programa enpresak ingurumenaren aldetik finkatutako helburuak eta helmugak aurrez erabakitako epean betetzeko hartutako ardurak eta baliabideak deskribatzen dituen dokumentua da.

Lanerako plan osoa da eta enpresaren eguneroko jardueraren ingurumen-politikaren isla da.

Programa eguneroko bizitzan ingurumena babesteko erabiltzen da, eta, bere ondorioz, ingurumen-jokabidean eta jardueran aldaketak antzeman behar dira.

Programak dinamikoa izan behar du eta aldian-aldian berrikusi egin behar da, enpresak finkatutako ingurumen-helburuen eta -halmuguen aldaketak egiteko.

MUNKSJÖ PAPER DECOR, S.A.

Gure enpresa-kudeaketan ISO 14001 Araua eta EMAS Europako Araudia martxan jartzeak etengabe hobetzeko tresna gehitu izana ekarri du. Urtero ondorengo ingurumen-helburuak betetzeko konpromisoa hartu dugu:

- Ingurumen-legeria eguneratzea eta betetzeko egunean jartzea.
- Isurpenen kontrola hobetzea: airea, ura, hondakinak, soinua.
- Fabrikazio-prozesuak berrikustea, eta, ondorioz, lehengaiak berriro erabiltzea eta baliabidea aurrezte.
- Uneko lehengaien ordez gutxiago poluitzen dutenak erabiltzea.
- Soinu-mailak araudiaren arabera tratatzea.
- Langile guztiek Kalitatearen eta Ingurumenaren hobekuntzan parte hartzea.
- Produktu toxikoak eta arriskutsuak indarrean dagoen araudiaren arabera biltegitatzea.
- Hondakinen kudeaketa hobetzea eta beti berriro erabil daitezten saiatzea.
- Gure ibaiadarren kalitatea hobetzea.

Ingurumen-helburuen eta -halmuguen adibideak

Politika	Helburua	Helmuga
Energiaren kontsumoa gutxitzea	2002ko irailerako elektrizitatearen kontsumoa % 25 gutxitzea	1. Elektrizitatearen kontsumoa kontrolatzeko banakako sistema. 2. Bonbilla zaharren ordez kontsumo gutxiko berriak jartzea.
Hondakin gutxiago sortzea	2002ko azarorako % 50 hondakin gutxiago sortzea	1. Ontzi txikiak desagertaraztea. 2. Kristalezko eta metalezko ontziak eta itzultzeko eta birziklatzeko ontziak erabil daitezten sustatzea. 3. Klororik gabeko papera erabiltzea.
Uraren kontsumoa gutxitzea	2002ko ekainerako uraren kontsumoa % 20 gutxitzea	1. Dutxa elektrikoetan "on-off" etengailuak jartzea. 2. Ur-kontagailuak jartzea.

Ingurumena kudeatzeko edozein programaren edukia ondorengo izan daiteke:

- Ingurumen-helburuak
- Halmugak
- Funtzioak eta ardurak
- Kronograma
- Behar diren bitartekoak
- Adierazleak (horretarako aukera egongo balitz)

Ikus informazio osagarria:

200 gomendio hondakin gutxiago sortzeko.

Dohain eskura dezakezu IHOBE-Line-n bidez (900 15 08 64).

ONA ELECTROEROSIÓN, S.A.

Helburuak.

1. Pintatzeko presio altuko pistolen ordez pistola mistoak erabiltzea, pinturaren kontsumoa gutxitzeko.
2. Elektrohigadura-makinak paketatzen material gutxiagorekin eramango dituztela bermatzen duten garraioariak bilatzea.
3. Taladrinek gehiago iraun dezaten ahalegintzea.



Egunero martxan izateko eta kudeatzeko 7 pauso eta talde-lana behar dira

6. pausoa: Egitura eta ardurak. Hegazkinak piloturik bala du?

Lanak delegatu egin behar dira eta ardurak banatu egin behar dira, guztiek zer egin behar den jakin dezaten. Sistema ongi ibil dadin, ezinbestekoa da nork zer, nola, noiz eta zein baimenekin egiten duen jakitea; hau da, kudeaketa-sistema ongi ibiliko da baliabideak egokiak badira eta sistema martxan jartzeko garaian esku hartu behar dutenek zein ardura eta funtzio dituzten argi badute.

- Legeak betetzen direla segurtatzeko eta ingurumen-jardueran etengabe hobetzeko.
- Ingurumena kudeatzeko programa koordinatzeko.
- Langileen ingurumen-kontzientzia areagotzeko eta trebakuntza antolatzeko.
- Dokumentazioa antolatzeko eta eguneratzeko.
- Langileekin komunikatzeko.
- Ingurumena Kudeatzeko Sistema ikuskatzeko.

Enpresaren Zuzendaritzak, beraz, ingurumenarekin eta Ingurumena Kudeatzeko Sistemarekin lotura duten lanak egiten dituzten pertsonen ardurak eta funtzioak idatziz definitu behar ditu.

Horrez gain, Zuzendaritzako goi-mailako ordezkari bat izendatu behar du, Ingurumena Kudeatzeko Sistemaren ardura-dun izateko, hau da, "Ingurumen" jaun edo anderea izendatu behar du Ingurumena Kudeatzeko Sistema osoa gidatzeaz ardura dadin.

ISO-14001ek langileen parte-hartze aktiboa eskatzen du. Horixe da ingurumena hobetzeko indarra eta aurretik bete beharreko baldintza. Langileek politika definitzeko garaian, hasierako ingurumena berraztertzeke unean, kudeaketa- programan... parte hartu behar dute. Komunikazioa antolakuntzaren maila guztietan ziurtatu behar da. Iradokizunen gutunontzia, trebakuntza egokia, taldeko ingurumen-lana eta ordainsarien sistema ezinbesteko piezak dira ingurumenaren kudeaketak arrakasta izan dezan.

7. pausoa: Berriro eskolara: ingurumenaren inguruko kontzientziaketa eta trebakuntza

Langile guztien jarduerak du ingurumenarekin inpaktua, enpresaren tamaina edozein dela ere.

Zuzenean edo zeharka, garrantzi gehiagorekin edo gutxiagorekin, guztiek egin diezaiokete ekarpen positiboren bat berrikuntzari ideia berriekin, edonork alda dezake jokabidea eta jendeak parte har dezan lagun dezake.

Horretarako, informazioa, trebakuntza eta ohitura berriak hartzea ezinbestekoa da.

Ikus informazio osagarria:
Zure lana ezinbestekoa da ingurugiroa garbitzeko! (horma-irudia).
Dohain eskura dezakezu IHOBE-Line-n bidez (900 15 08 64).

ISO 14001ek beharrak ebaluatzeko eta trebakuntza antolatzeko eskatzen du, langileak trebatzeko eta gaitzeko.

Nork behar du?


Erakunde osoak, eta bereziki:

- Kudeaketa Sistemari aritu behar dutenek.

- Ingurumen-inpaktua eragiten duen lan zehatza egiten dutenek.
- Sistemaren ezarpenaren segimendua egin behar dutenek.
- Enpresan aplikatu beharreko ingurumen-legeria identifikatzearekin eta eguneratzearekin zerikusia dutenek.
- Istripuen eta gertaeren segimenduari lotura dutenek.
- Lan-prozesuetan izaten diren aldaketekin eta langile berriekin lotura dutenek.

KIDE, S. COOP.

Kide, S. Coop.-ren egintzen artean, "elkartasunaren eta ingurumena errespetatzearen irizpidearekin, epe luzera enpresaren garapen orekatua bultzatzea" puntu garrantzitsua da. Lanerako filosofia horri jarraituz, Kide, S. Coop.-en lan egiten dugun guztiok errespetatzen dugu ingurumena eguneroko gure jardunean. Ondorioz, ingurumenari laguntzen ari garela jakinik, gogobetetze-maila, motibazioa eta harrotasuna areagotu egiten dira.



8. pausoa: Komunikazioa: esan zer egingo den eta dagoeneko zer egin den

Ingurumena Kudeatzeko Sistema garatzea lortzeko, sistema horrekin lotura duen informazio guztia hedatu behar da enpresaren barruko komunikazioaren bidez; horrela, langileak sentsibilizatu eta motibatu egin behar dira. Kanpoko komunikazioaren bidez, berriz, aldean eta interesa duten erakundeen artean hedatu behar da informazioa (informazio-eskaera, kexak, erreklamazioak...).

Beharrezkoa da langileak ingurumena babesteko garrantziaz kontziente izan daitezen lortzea, eta, horretarako, sentsibilizazioarekin lotuta bi noranzkotako komunikazioa izan behar da, ondorengo arrazoiengatik:

- Ingurumen-politika eta -helburuak betetzeak enpresarentzat duen garrantzia.
- Jardueraren ingurumen-eraginak gutxitzeak duen garrantzia.
- Ingurumen-politika eta -helburuak betetzeko garaian pertsona bakoitzak dituen lana eta ardura.
- Operazioaren prozeduraren segimendua ez egiteak izan ditzakeen ondorioak.
- Enpresak izan ditzakeen etekin ekonomikoak eta irudiari dagozkionak.

Motibazioa funtsezkoa da etengabe hobetzeko prozesuan aurrera egiteko, eta ondorengoaren bidez lor daiteke:

- Zabalkunde-programak.
- Ingurumen-helburuak eta -helmugak iristean lortutako onarpena.
- Ingurumenaren inguruko emaitzak hobetzeko iradokizunak

Alde horretatik, funtsezkoa da informatzeko bilera txikiak antolatzea. Bilera

horietan sistema martxan jartzeko erarik egokiena eta arrakasta izateko langile guztiak kontuan hartzeak duen garrantzia eztabaidatu behar dira.

9. pausoa: Idatzizko erreferentzia eduki ezazu: Ingurumena Kudeatzeko Sistemaren dokumentazioa

Ingurumena Kudeatzeko Sistema guztiek behar bezala dokumentatuta egon behar

Ikus informazio osagarria:
ISO 14001i buruzko IHOBE esku-liburua: ezartzeko eskuliburua.
IHOBE-Line-n bidez eskura deza-kezu (900 15 08 64).



Ahal dela, ez ezazu papera pilatu

dute. Dokumentazioa erakundearen ingurumen-historiaren barruko memoria da.

Ingurumenaren aldetik erakundearen kudeaketa nolakoa izan den jakinarazten duen frogak da.

Egokia, ongi antolatua eta eragingarria izan behar du, eta bai paperean, bai euskarri elektronikoan egon behar du. Ondorengo izan beharko du:

- Ingurumena Kudeatzeko Eskuliburua. Eskuliburua honetan, ingurumen-politika irudikatu behar da, eta ardurak eta helburuak, helmugak eta programak definitu behar dira.
- Prozedura eta argibide teknikoak. Atal honetan, enpresaren jardura guztiak nola gauzatzen diren deskribatu behar da.
- Beste dokumentu batzuk, esate baterako, Ikusapena Planak, Trebakuntza Planak, Arauak eta abar.
- Gertaeren, kexen eta abarren erregistroa.

10. pausoa: Dokumentazioaren kontrola "ahoz esandakoa desagertu egiten da, idatziz dagoenak iraun egiten du"

Ingurumena Kudeatzeko Sistema eragingarria izan dadin, ezinbestekoa da enpresako langile guztiek dokumentu berberak erabiltzea.

Horretarako, enpresak dokumentuak kontrolatzeko sistema jarri behar du martxan.

Helburu nagusiak bi dira: batetik, edozein unetan informazio garrantzitsu guztia aurkitzeko moduan eta eskura izatea eta, bestetik, informazio zaharkitua gaizki ez erabiltzeko behar bezala erretiratzea edo identifikatzea.

Sortutako dokumentazioak identifikatzeko kodea, argitaratu den eguna eta berrikuspenen erregistroa izan behar ditu eta pertsona batek edo hainbatek sinatuta egon behar du.

11. pausoa: Jar itzazu zure eragiketa eta jardura guztiak paperean: Eragiketa-kontrola

Eragiketa-kontrola identifikatutako ingurumenaren alde garrantzitsuekin lotura duten eragiketak eta jarduerak identifikatze-

ko eta kontrolatzeko sortutako dokumentazioak osatzen du.

Ingurumen-inpaktu garrantzitsuak sortzen dituzten eragiketen eta jardueren ezaugarri nagusiak kontrolatu egin behar dira, enpresak finkatutako helburuak eta helmugak eta ingurumen-politikan finkatutakoa bete daitezen bermatzeko.

Hau da, hainbat egoerari (bereziki, kontrolik ezak politika, helburuak eta helmugak desbidera ditzakeenean) irtenbidea emateko bermea da. Dokumentazioa piktograma simple bat izan daiteke, edo bete beharreko lanaren deskribapen zehatza. Baina bete beharreko eragiketak egiteko edo zure banatzaileentzako edo azpikontratatuzaileentzako zehaztapenen azalpen sakona ere izan daiteke.

Dokumentazioa ongi bilduta eta erabilia lortuko dira finkatutako helburuak eta helmugak eta garatuko da ingurumen-politika. Prozedura horiek erakundeko kide guztiei zuzenduta daude.

12. pausoa: "Suhiltzaileak", larrialdi-egoeretako prebentzioa

Istripu eta gertaera gehienek ingurumena eta enpresako langileen osasuna eta segurtasuna –baita auzokoena ere– kalte ditzakete. Enpresan ondorio ekonomiko larriak eragin ditzakete.

Larrialdi-egoerak beranduegi izan aurretik prebeni daitezke. Horretarako, egoera horietan behar bezala jokatzeko

planak landu eta martxan jarri behar dira. Arriskuak prebenitzeko ondorengo programa kontuan hartuko da:

- Gerta daitezkeen istripuak eta larrialdi-egoerak identifikatzea eta ebaluatzea.
- Istripuak (gai arriskutsuak jariatzea...) prebenitzea, ondorioz eragin daitezkeen ingurumen-inpaktua prebenitzeko.
- "Badaezpadako" larrialdi-planak edota-prozedurak prestatzea.
- Planek edota prozedurek behar bezala funtzionatzen dutela ziurtatzeko simulazioak.
- Aurretik gertatu diren istripuen esperimentzietan oinarritutako ikasketa.

Kontrola itzazu zure ingurumen-kudeaketa eta etengabeko hobekuntza 6 pausotan

13. pausoa: Segimendua eta neurketa: Ingurumena Kudeatzeko Sistemaren kontrol-panela

Ingurumena Kudeatzeko Sistemaren zati hau erabilgarria da ingurumen-helburuen eta -halmugen garapenari segimendua egiteko eta Legezko Araudiaren arabera-ko onespena ziurtatzeko.

Segimenduko eta Neurketako Jarduerak ondorengoak dira:

- Ingurumenean inpaktu garrantzitsua eragiten duten eragiketen eta jardueren funtsezko ezaugarriak kontrolatzea eta neurtzea.
- Ikuskatze-ekipoak kalibratzea eta horien mantentze-lanak egitea.
- Ingurumenaren aldetik aplikatu daitezkeen legeak eta arauak betetzen diren ebaluatzea.

- Prozedurak eta erregistroak ezartzea eta eguneratzea.

Etengabeko segimendua eta kontrola erabilgarriak dira, besteak beste, ondorengoak egitekoan:

Administrazioak hala eskatuta, informazio garrantzitsua **emateko** garaian.

Langileei ingurumen-jardueren inguruko **informazio osoa** emateko garaian.

Kudeaketako adierazle arruntekin, ingurumen-kudeaketaren etengabeko hobekuntzaren **segimendua** egiteko garaian.

Kokalekuaren ingurumen-kudeaketaren hainbat urtetako kalitatea **alderatzeko** garaian.

Produktuak eta prozesuak ordezkatzeko jarduerak **bultzatzeko** garaian.

14. pausoa: Ikasi jardunez: desadostasunak, ekintza zuzentzaileak eta ekintza prebentiboak

Inor ez da perfektua... eta Kudeaketa Sistemak ez du zehatz funtzionatuko lehen egunetik.

Gaizki funtzionatzearen arrazoiak ondorengoak izan daitezke:

- Ingurumena Kudeatzeko Sistemaren diseinuan hutsuneak.
- Sistema martxan jartzeko garaian hutsuneak.
- Instalazioan bertan hutsuneak edo akatsak.
- Ekipo nagusietan edo osagarrietan hutsuneak edo akatsak.
- Giza akatsak.
- ...

Beraz... zer egin arazoak daudenean? Desadostasunak eta horien arrazoiak detektatu ondoren, ekintza zuzentzaile egokiena definitu eta martxan jarriko da, eta berriro ez gertatzeko hartu beharreko neurriak (ekintza prebentiboa) garatuko edo aldatuko dira. Egiten diren aldaketa guztiak idatzi egingo dira. Horrenbestez, ekintza zuzentzailea arazo baten aurrean emandako erantzun azkar eta egokia da, eragin negatiboak motel-tzen dituena eta berriro gerta ez dadin prebenitzen duena. Egindako akats guz-tien bidez ikasi egin daiteke, eta espe-rientziak onurak ekar ditzake. Izaten diren gertaera guztiak, gertaera horiek sortzen dituzten arazoak eta eman zaiz-kien irtenbideak jasotzeko erregistro-libu-ru bat eduki ezazu.

15. pausoa: Erregistroak: in-gurumen-kudeaketaren me-moria

Erregistroak Ingurumena Kudeatzeko Sistemak funtzionatzen duela frogatzeko dira. Beren diseinuaren bidez, inguru-men-politika bete egiten dela erakuts dai-teke, baita ingurumen-helburuak eta -helmugak zenbateraino bete diren ere.

Ingurumen-erregistroek zehatzak, irakur-terrazak eta ulerterrazak izan behar dute eta beti jarduerarekin, produktuarekin edo zerbitzuarekin identifikatu behar dira.

Erregistro horiek Ingurumena Kudea-tzeko Sistemaren gainerako dokumenta-zioa bezala kudeatzen dira eta artxiboan gorde beharreko denborak idatziz defini-tuta egon behar du.

Erregistroen adibideak:

- Ingurumen-aldeen identifikazioa eta ebaluazioa.
- Legezko baldintzak.
- Jakinarazpen garrantzitsuak.
- Hondakin-uren, isurpenen eta uraren kalitatearen analisiak.
- Energiaren eta uraren kontsumoa, pro-duktuen erabilera eta abar.
- Trebakuntzako ziurtagiriak.
- Barruko ikuskaritzen eta Zuzendaritza-ren berrikusketen txostenak.

16. pausoa: Ingurumena Kudeatzeko Sistemaren ikuskapena – Gonbida ezazu Sherlock Holmes!

Barruko ikuskapena Ingurumena Kudeatzeko Sistemak nola funtzionatzen duen eta ingurumen-jardueraren egoera zein den jakiteko aldian-aldian egin behar-reko azterketa da.

Legeak dioena zenbateraino betetzen den egiaztatzeko aukera ere ematen du. Prozesu sistematikoa eta dokumentatua da, eta ikuskatu beharreko "jardueratik" kanpoko norbaitek egin behar du. Aztertzaileak jarrera kritikoa izan dezake edo Ingurumena Kudeatzeko Sistemak nola funtzionatzen duen ikus dezake.

Ikuskapenak beharrezkoak dira egoera orokorra ikusteko aukera direlako eta ezinbestekoak dira ingurumen-jarduera etengabe hobetzeko.

Barruko ikuskapena enpresak berak eta kanpoko laguntzarik gabe Sistemak behar bezala funtzionatzen duen zehaz-teko bitartekoa da.

Barruko ikuskapenen emaitzak aldian-aldian aztertzen dira, gutxienez urtean behin, Zuzendaritzak azterketa egiten duenean.

17. pausoa: Gailurrean bilera, etengabe hobetzeko: Zuzendaritzaren berrikusketa

Etengabe hobetzeko konpromisoari eki-teko, Zuzendaritzak Ingurumena Kudeatzeko Sistema aldian-aldian aztertu behar du eta emaitzak erregistratu egin behar ditu, sistemak norabide egokia izan dezan.

Aldizkakotasuna definitua izaten dute (normalean urtean behin egiten dira) eta barruko ikuskapenen, neurketen eta bes-te hainbat punturen emaitzak berraztertu egingo dira Ingurumena Kudeatzeko Sis-temaren etorkizuneko ingurumen-estra-tegiaren inguruko planak egiteko...

Bileran, besteak beste, ondorengo pun-tuak aztertuko dira:

Gure helburuak eta helmugak lortzen ari gara?

Gure ingurumen-politika eguneraturik al dago?


Izendatutako ardurak eta erantzukizunak oraindik ere garrantzitsuak al dira?

Gure baliabideak zuzen eta zentzuz kudeatu al ditugu?

Etengabeko hobekuntzan gehiago aurre-ra al dezakegu?

Gure langileak tartean sartuz arrakasta izan al dugu?

Nolakoa da komunikazioa?





Ezin dut kudeatu neurtu ezin dudana

Ingurumen-kudeaketaren adierazleak funtsezkoak dira enpresaren ingurumen-jarduera gidatzeko, kudeatzeko eta jakinarazteko. Ingurumen-kudeaketaren adierazleak informazio konpromitua dira, baita etengabe hobetzeko norabidea finkatzeko tresnak ere. Adierazleen laguntzarekin, Ingurumena Kudeatzeko Sistemak eskaintako informazioa argiagoa eta gardena da, eta errazago aldera daiteke.

Ingurumena kudeatzeko adierazleak erabilgarriak dira Ingurumena Kudeatzeko Sistemetan, ondorengo adierazten dutelako:

- Ingurumen-inpaktu garrantzitsuen segimendua.
- Desadostasunak desagertaraztea eta ekintza zuzentzaileen eta prebentiboen segimendua.

- Erregistroetarako datu erabilgarrien eraketa eta azterketa.
- Barruko ikuskapena eta kanpoko ikuskapen-prozesua.
- Sistemaren berrikusketari babesa.
- Barruko eta kanpoko komunikazioaren balioaren areagotzea.
- Erakundeak bere sektoreko enprekin alderatzeko aukera du.

- Langileei ingurumen-jardueren diseinu argia eskaintzen zaie.

Ikus informazio osagarria:
**Enpresentzako ingurugiro-adierazle-
leen gidaliburua.**
IHOBE-Line-n bidez eskura dezakezu (900 15 08 64).

FUCHOSA, S.A.

Enpresa hau leku pribilegiatuan dago, bezero gehienak automozioaren sektorekoak dira eta sektore horrek asko eskatzen du ingurumenaren aldetik. Beraz, enpresaren eguneroko kudeaketaren barruan ingurumena sartzeko garrantzi handia duela kontziente gara.

Horregatik, ingurumen-adierazleak erabiliz, etengabe ingurumena hobetzeko konpromisoaren aldeko apustua egin dugu. Adierazle horien bidez, ingurumen-jokabidearen segimendu zehatza egin dezakegu eta gure helburuak eta helmugak beren ingurumen-programan araberak finka ditzakegu.

Manufakturaio-enpresa bateko ingurumen-jokabidearen adierazleak

Jarduerak	Ingurumenarekin lotura duten aldeak	Kudeaketa-adierazlearen adibidea
Garraioa	Energiaren kontsumoa Airearen poluzioa	500 l erregai banatutako 1 tona lehengaiok Ibilgailuen % 50ek katalizatzaileak erabiltzen ditu
Energiaren kontsumoa Baliabideen kontsumoa	Energiaren kontsumoa Lehengaiak Energia Ura	Elektrizitatearen % 30 energia alternatiboen bidez lortzen da 5 kg lehengai manufakturatutako 1 kg produktuko 20 kWh elektrizitate injekzio-makinaren 1 orduko 10 l ur kontsumituta fabrikatutako produktu bakoitzeko
Ekoi-zen-prozesua	Deskarga poluitzaileak Hondakinak ekoi-zea	500 kg CO ₂ urteko 0,3 gramo koipe hondakin-ur litro bakoitzeko 80 kg hondakin fabrikatutako tona bakoitzeko
Likido arriskutsuak biltegitratzea	Hondakinak sortzea	Likido arriskutsuen % 90 ontziratuta egiten da
Hondakinaren kudeaketa	Isurpenen arriskua	Hondakinaren % 80 banatu eta birziklatu egiten da
Banaketa eta paketatzea	Baliabideak erabiltzea eta poluitzea	Garraiorako bilgarrien % 60 itzuli egiten da eta berriro erabiltzen da 0,2 kg bilgarri fabrikatutako produktuaren kg bakoitzeko

Zerbitzu-enpresa baten ingurumen-jokabidearen adierazleak

Jarduerak	Ingurumenarekin lotura duten aldeak	Kudeaketa-adierazlearen adibidea
Berogailua	Erregaiaren edo gasaren kontsumoa	150 l erabilitako erregai urteko
Laneko bidaia	Erregaiaren kontsumoa	50.000 km laneko bidaia hegazkinaz langileko eta urteko langileen % 60k garraio publikoa erabiltzen du
Inprimatzeak eta kopiak	Paperaren kontsumoa	Erabilitako 18 kg paper urteko eta langileko Erabilitako paperaren % 30 birziklatu egiten da
Catering-a	Hondakinak sortzea Baliabideak kontsumitzea	250 g hondakin/emandako janari bakoitzeko emandako janariaren % 45 nekazaritza biologiko bidez ekoi-zeatzen da
Mantentze-zerbitzua	Material eta gai kimikoak kontsumitzea	Garbitzeko produktuen % 30 biodegradagarriak dira % 98n Erabilitako 15 litro garbitzeko produktu urteko eta bulegoko m ² -ko

Ingurumen-kudeaketaren adierazlearen adibide batzuk

Jarduerak	Ingurumenarekin lotura duten aldeak	Kudeaketa-adierazlearen adibidea
Ingurumen Saila	Ingurumen-helburuak eta -helmugak	Ingurumen-helburuen % 80 lortzen da
Kontabilitatea	Inbertsio berdeak	luz egin ziren inbertsioen % 10 teknologia berdeetan egin zen
Giza baliabideak	Langileak trebatzea	Ingurumenari buruzko gaietan trebatzeko 2 ordu erabili ziren 1999an
Segurtasuna	Ingurumenarekin lotura duten gertaerak	Poliziorik gabeko garrantzi gutxi 3 gertaera izan ziren 1999an
Harreman publikoak	Ingurumenarekin lotura duten kexak Bizilagunekin harremanak	Bizilagunen 2 kexa soinuarengatik 1999an Enpresan ateak zabaltzeko 3 egun urteko 250 pertsonaren bisita
Horniketa	Erosketa berdeak	Teknikoak ez diren produktuen % 75 ingurumenaren irizpideari begiratuta erosten da
Kalitatearen kudeaketa	Banantzaileen katearen kudeaketa	Banantzaileen % 80 ingurumenaren araberak baloratu zen

Konpainia garrantzitsuek ere erabil ditzakete beren inguruko ingurumen-egoera eta ingurumen-baldintzak jakiteko adierazleak.

ISO 14001-ek sinesgarritasuna esan nahi du

20

18. pausoa: Ingurumena Kudeatzeko Sistemaren ISO 14001 Arauaren arabera ziurtagiria

Ingurumena Kudeatzeko Sistema martxan jartzeko garaian helburuetako bat zure adostasuna hirugarrenei/bitartekariei erakustea da.

Prozesu hori gardena, objektiboa eta, beraz, sinesgarria izan dadin, Ingurumena Kudeatzeko Sistemaren egiaztagiria Akreditatutako Ziurtagapen Organismoak eman behar du. IHOBE-Line Ingurumenari buruzko Informazio Zerbitzua doako 900-15 08 64 telefonoan dago, eta, bertan, Euskal Autonomia Erkidegoko ziurtagiriak emateko erakunde nagusiak zein diren esango dizute.

Ziurtagapen Organismoen arabera, Ingurumena Kudeatzeko Sistemaren ziurtagiria jasotzeko, enpresa batek ondorengo baldintzak bete behar ditu:

- Ingurumena Kudeatzeko Sistema operatiboa, gutxienez 3 hilabete aurreragotik.
- Ingurumena Kudeatzeko Sistemaren ikuskapena.
- Zuzendaritzak Ingurumena Kudeatzeko Sistema berrikustea.

Berrikusketa horrek frogatzen du Ingurumena Kudeatzeko Sistemak ziurtagiria jaso ahal izateko helburuak betetzen dituela:

- Ingurumen-legeria betetzea.
- Etengabe hobetzeko prozesua aplikatzea.

Enpresa batek Ingurumena Kudeatzeko Sistemaren ziurtagiria jasotzeko eman behar dituen pausoak:

- Ingurumena Kudeatzeko Sistema ISO 14001en arabera martxan jarri behar da
- Aukeratutako Akreditatutako Ziurtagapen Organismora Ingurumena Kudeatzeko Sistemaren ziurtagiria eskuratzeko eskaera bidali behar da.

- Aukeratutako Akreditatutako Ziurtagapen Organismoak bisita bat egingo du enpresara eta beharrezkoa den dokumentazioa aztertuko du.
- Akreditatutako Ziurtagapen Organismoak ikuskapen-prozesua egingo du.
- Enpresari Ziurtagiria emango zaio.
- Enpresak dagozkion tasak ordainduko ditu.



- Aukeratutako Akreditatutako Ziurtagapen Organismoak erregistro-zenbakia emango dio enpresari.
- Enpresak Ingurumena Kudeatzeko Sistemaren ziurtagiria adierazten duen logotipoa erabil dezake.

Ingurumenaren ziurtagiria mantentzea

Ingurumena Kudeatzeko Sistemaren ziurtagiria lortu duten enpresak erakutsi dute, ziurtagiriak balio duen tartean (3 urte), Ingurumena Kudeatzeko Sistemak ziurtagiria lortzeko oinarri gisa balio izan zuten baldintzak betetzen dituela.

Nola frogatzen da Ingurumena Kudeatzeko Sistema baldintza horiek betetzeko oraindik eragingarria dela?

Akreditatutako Ziurtagapen Organismoak Segimendurako Ikuskapenak egingo ditu, normalean urtero, Ingurumena Kudeatzeko Sistema oraindik ingurumen-politikaren ondorio diren ingurumen-helburuak lortzeko egokia dela egiaztatzeko.

TALLERES DE ESCORIAZA, S.A.

Sarrailgintzaren sektorean liderra den enpresa da eta nazioarteko merkatu garrantzitsu ugari ditu. Beraz, TESAn, 1995ean, ingurumenaren araudira behin betiko egokitzeko behar estrategikoa planteatu genuen eta gure hondakin-urak garbitu genituen. Urte askotan administrazioaren presioa saihestu egin genuen, baina dagoeneko ezin genuen atzean geratu eta eskualdean itxura txarra eman. Gainera, ezin genuen Eusko Jaurlaritzaren, Gipuzkoako Kontzortzioaren, Udalaren eta abarren ingurumen-arduradunekin etengabe borrokan aritu.

Bi urte baino gehiago pasatu ondoren, gure hondakin-urak segurtasun osoz garbitzen ari gara, eta, ondorioz, erakundeekin genituen harremanak hobetu egin dira.

Ingurumen Ziurtagiria: Bikaintasuna lortzeko ikurra

Zer da Ingurumen Ziurtagiriaren ikurra?

Sinbolo hori ziurtagiria jaso duten erakundeek erabiltzen dute, Ingurumena Kudeatzeko Sistema UNE-EN ISO 14001 Arauaren arabera martxan jarri dutela publiko egiteko.

Ikur hori edukitzeak ondorengo esan nahi du:

- Ingurumena Kudeatzeko Sistema martxan jarri dela eta funtzionatzen ari dela.
- Enpresa horrek ingurumen-jarduerak hobetzeko eta, legeak finkatutako baldintzez gain, ebaluazio sistematikoa, objektiboa eta aldizkakoa egiteko konpromisoa hartu duela.
- Langileek aktiboki parte hartzen dutela.

Ingurumen Ziurtagiriaren ikurraren zergatia:

Ikurraren helburuak ondorengoak dira:

- Jendearen, interesa duten aldean eta ingurumen-jarduera hobetzeko gogoa duten erakundearen artean erreferentzia hori gehiago ezagut dadin lortzea.
- ISO 14001 ziurtagiria duten erakunde-ei merkatuan komunikazio hobea izan dezaten laguntzea.


Ingurumen Ziurtagiriaren ikurra ez da Ekoetiketa. Kontsumitzaileari ez dio produktuari buruzko inolako informazioirik ematen, Ekoetiketaren antzera. Emandako informazioaren egoera ziurtatua adierazten du. Beste modu batera esanda, ikurra "informazioaren fidagarritasunaren ezaugarria" da, baina ez "produktuen bikaintasunaren ezaugarria".

Ikurra erabiltzeko aukerak:

- Informazioa emateko garaian, enpresak ISO 14001en arabera ziurtagiria jaso duela jakinaraztea.
- Ziurtagiria jaso duen erakundearen idazpuruan erabiltzea.
- Publizitatea egiteko edozein motatako materialetan, enpresaren aipamena egiten den kasu guztietan eta enpresaren produktuen eta marka komertzialen iragarkiak bakarrik ez direnetan erabiltzea.

Akreditazioko Erakunde Nazionalak (ENAC) akreditatutako enpresa ziurtagiri-emaileak


Euskal Autonomia Erkidegoan zerbitzua eskaintzen duten enpresa ziurtagiri-emaile ugari daude. Zure bezeroen eta zure lehentasunen arabera aukera ezazu gehien interesatzen zaizun ziurtagiri-emailea.



21

Ikurrarekin zer egin daitekeen eta zer ezin den egin:

- Bai: ziurtagiria duen kokalekuaren sarrerako atean jartzea.
- Bai: ziurtagiria duen erakundearen liburuxkaren azalean jartzea.
- Ez: ziurtagiria duen kokalekutik datozen produktuak edo zerbitzuak erabiltzen dituen erakundeak ezin du erabili.
- Ez: produktuen gainean ezin da jarri.
- Ez: kontsumitzaileentzako edo azken erabiltzaileentzako produktuen azpiko bilgarriaren gainean ezin da jarri.
- Bai: gainerako bilgarriaren gainean jar daiteke (azpiko bilgarrien multzoak, babesteko edo errazago erabiltzeko).



Kanpoko ingurumen-komunikazioa eta elkarrizketa Ingurumena Kudeatzeko zure Sistemaren agertokiak dira

22

Kanpoko ingurumen-komunikazioa

Ingurumen-jardueren kanpoko komunikazioa areagotu egin daiteke eta merkatuan enpresak duen irudia hobetu egin dezake. Gogora ezazu, EMAS II araudiarekin alderatuta, ISO 14001 eskuratzeko ez dela publikoki ingurumen-adierazpenik edo -txostenik egin behar. Ingurumena Kudeatzeko Sistema EMAS IIren arabera ezarri gero, informazio hori fidagarria dela bermatzen da, frogatu egin delako, eta kontsumitzaileek, banatzaileek, administrazio publikoak, langileek eta bertako komunitateak baloratu egingo dute. Interesa duten aldeek hainbat eratako informazioa jaso nahi izaten dute.

Tokian tokiko administrazioak:

- Isurpenen eta hondakinen kudeaketaren datuak.

- Ingurumen-araudiaren araberako adostasuna eta kexak.
- Istripuak eta gertaerak.

Bezeroak:

- Prozesuen inguruko informazioa.
- Produktuen, zerbitzuen edo kudeaketaren ingurumen-kalitatea.

Finantza-erakundeak eta inbertitzaileak:

- Ingurumen-legeria betetzen den.

Kontsumitzaileak:

- Jendearen interesa pizten duten gaiak.
- Lehengaien jatorria.

Ingurumenarekin zerikusia duten GKEak:

- Etengabe hobetzeko ingurumen-jardueraren garapena.
- Poluzioaren prebentzio-printzipioa aplikatzea.



ISO 14001 duten enpresentzako kanpoko ingurumen-komunikazioko aukerak

Enpresentzako Europako Ingurumen Sariak

Europako Batzordeak bi urtetik behin Ingurumenaren Kudeaketan, Ekodiseinuan, Ekoefizientzian edo Ekoizpen Garbian jokabide egokiena izan duten enpresak saritu egiten ditu. IHOBE, S.A. Sozietate Publikoak koordinatzen dituen sari horien Euskal Sailera aurkezteko aukera azter ezazu. Irabazleek Espainiar Sailean (Fundación Entornok dinamizatutakoa) parte hartzen dute, eta bertako irabazleek Europako sari ospetsuena irabazteko aukera izango dute.

Ingurumen Bikaitasunaren Kasu Praktikoak

Arrakasta izaten duten, transferigarriak diren eta guztiz berritzaileak diren ingurumen-esperientziak IHOBE, S.A.k argitaratzeko eta sustatzeko aukera dute, Ingurumen Kudeaketaren, Ekoizpen Gar-

biaren, Berrikuntzaren, Ekodiseinuaren edo Birziklatzearen alorretan, Ingurumen Bikaitasunaren Kasu Praktiko gisa, oinarriko baldintzak betetzen badira eta azken aukeraketan esku hartzen badute. Gaur egun, beren adibide onarekin euskal industrian eragile diren hogeitabat enpresa daude eta ingurumen marketina dohain jasotzen dute. Informazio gehiago eskuratu nahi baduzu,

konsulta ezazu Euskal Industriarentzako Ingurumenaren Informazio Zerbitzua: IHOBE-Line-n, 900-15 08 64 doako telefonoan.



ISO 14001-i buruz jakin beharreko guztia

Ohiko galderak

Enpresa oso txikiak Ingurumena Kudeatzeko Sistema jarri al dezakete martxan?

Bai, ISO 14001 edozein erakundek jar dezake martxan, betiere bere jarduerak ingurumenean inpakturik badu. Hala ere, beharrezkoak diren giza balibideak eta balibide ekonomikoak aurrez kalkulatu eta prozesua hasi aurretik ISO 14001 ziurtagiriak estrategia aldetik duen garrantziaren inguruan hausnartu, bereziki enpresa txikietan.

Zenbat balio du Ingurumena Kudeatzeko Sistema martxan jartzeak?

Gastuak enpresaren tamainaren eta bere jardueren araberakoak dira. Orain arteko esperientzia kontuan hartuta, ez dago koste estandarrik.

Hala ere, ISO 14001 20-100 langileko ETEetan martxan jartzeko ohiko gastuak 6.000 eta 18.000 euro artekoak dira. Horietatik 3.000-12.000 euro aholkularitzako gastuak dira; isurpenen eta hondakinen neurketak 3.000 euro inguruko gastuak sorrazten dituzte eta ziurtagiriak berak 3.000-6.000 euro.

Gainera, Sistema martxan jartzen ari diren enpresako langileen kostuak ere badaude, 12.000-30.000 euro bitartekoak. Halaber, urtero sistemaren mantentze-lanetarako gastuak hartu behar dira kontuan, hau da, neurketen, kanpoko ikuskapenen (gutxi gorabehera, 1.200-3.000 euro urteko) eta barruko arduraldiaren (3.000-12.000 euro) gastuak. Hemen ez dira kontuan hartu ingurumen-legeria derrigor betetzeko egin beharreko gastuak eta inbertsioak, horiek ezin baitzaizkio ISO 14001i egotzi. Gastu eta inbertsio horiek kasu askotan zenbaterako handiak izaten dira.

ISO 14001 martxan jartzeko diru-laguntzak emateko hainbat programa publiko daude (IHOBE-Line-n, 900-15 08 64 telefono-zenbakian, kontsulta dezakezu). Azken urteotan, normalean, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak ETEei aholkularitzako, neurketako eta ziurtagiria jasotzeko gastuen % 30 eta % 50 ordaintzeko diru-laguntzak eman ditu.

Zenbat denbora behar da ISO 14001 Ingurumena Kudeatzeko Sistema martxan jartzeko?

Sistema martxan jartzeko behar izaten den denbora 1 eta 2 urte bitartekoa izaten da, eta, enpresaren tamainaren eta ekoizpen-prozesuaren konplexutasunaren arabera, aldatu egiten da.

Gogoratu ia enpresa guztietan ISO 14001 martxan jartzeko faktore kritikoa indarrean dagoen ingurumen-legediara egokitzea izaten dela. Ingurumen-arauen izapideak dagoeneko betetzen zituzten euskal enpresa batzuek ziurtagiria 6 hilabeteren buruan jaso dute.

ISO 14001 martxan jartzeko garaian zein da eman beharreko pausorik luzeena?

Esperientzia kontuan hartuta, hasieran lege aldetik egoera nahiko zuzena bada, sistemaren dokumentazioa egitea eta dokumentazio horretan deskribatzen diren jarduerak martxan jartzea dira denbora gehien behar duten pausoak. Horien atzetik ondorengo faseak daude:

- Hasierako ebaluazioa egiteko datu legalak eta teknikoak eta ingurumenari eta prozesuari buruzko datuak biltzea.
- Ingurumena kudeatzeko programa martxan jartzea.
- Langileak trebatzea.
- Barruko ikuskapena egitea.

Ingurumena Kudeatzeko Sistema martxan jartzeko eta funtzionamendu egokia mantentzeko zenbateko arduraldia behar da?

Hainbat urtetako esperientziaren ondorioz, arduraldia enpresa batetik bestera asko aldatzen dela ikusi dugu, horretan faktore asko hartu behar baitira kontuan (jardueraren sektorea, enpresaren tamaina, trebakuntza, sistemaren mantentze-lanez arduratuko direnen esperientzia, enpresa-kudeaketaren maila...).

Hala ere, enpresa txiki eta ertain gehienek 500 eta 1.500 ordu artean erabiltzen dituzte (bereziki proiektuaren arduradunak) ISO 14001 sistema martxan jar dadin lortzeko, lege aldetik egokitzapenak eta ingurumen-aldeen ebaluazioak egiteko bekadunen arduraldi gomendagarria kontuan hartu gabe eta langileen orduak kontuan hartu gabe (trebakuntza, ezartze operatiboa...).

Horrez gain, ez da ahaztu behar ingurumena kudeatzeko sistema bera mantentzeko behar den denbora. Enpresa estandar batean, urteko, gutxi gorabehera, 200 eta 1.000 ordu bitartekoa izan daiteke arduraldi hori.

Zein alde daude ISO 14001en eta EMAS IIren artean?

761/2001 EMAS II Europako araudia, baldintza zorrotzagoak dituzenez, ISO 14001 ziurtagiria jaso ondoren ezartzen da normalean. Baldintza osagarri horien artean ondorengoak nabarmen daitezke:

761/2001 Araudia (EMAS II)

Ingurumenaren adierazpen publikoa (egitea eta argitaratzea).

Ohiko, ezohiko eta larrialdiko egoeretan Hasierako Azterketa egitea ezinbestekoa.

Zeharkako aldeak aztertzen ditu.

Erakundeak erabakiko ditu zeharkako aldeei lotutako inpaktuak murrizteko hartu beharreko neurriak.

ISO 14001

Ez da beharrezkoa txostenik edo ingurumen- adierazpenik egitea.

Hasierako Azterketa aukerakoa.

Baldintza hori ez da ezinbestekoa.

Baldintza hori ez da ezinbestekoa.

ISO 14001 martxan jartzeko benetan kanpoko laguntza behar al da?

Bai, ISO 14001 martxan jartzeko eta ziurtagiria lortzeko ingurumen-aholkularitza baten babesa izate komeni da. Bere

babesa ezinbestekoa da gutxienez ingurumen-legerira egokitzeko plana egiteko, hasierako ingurumenaren ebaluazioa egiteko eta barruko ikuskapena egiteko. Ingurumen-aholkularitzek esperientzia

handia dute alor horretan eta zehatz-mehatz ezagutzen dituzte arauak eta erakunde ziurtagiri-emaleek egiten duten interpretazioa.

Argitalpen honetan azaltzen diren enpresak:

Enpresa	Langile-kopurua	Sector	Herria	IHOBE, S.A.ren argitalpenetan informazio gehiago
Bellota Herramientas, S.A. (5. orrialdea)	615	Erreminta	Legazpi	– Produkzio Garbiaren 100 adibide EAEn. 3. liburukia – Enpresarentzako Ingurugiro-Adierazleen gidaliburua
Composites Legazpi, S.L. (9. orrialdea)	65	Plastikoa	Ezkio-Itsaso	– Ingurumen-Bikaintasunaren Kasu Praktikoak CP 010 – Ingurumen-Bikaintasunaren Kasu Praktikoak CP 012
Elmet, S.L. (10. orrialdea)	94	Hondakinen Kudeaketa	Berango	– EAEko Industria-Birziklapenerako katalogoa (http://www.ihobe.net) – Ingurumen-Bikaintasunaren Kasu Praktikoak CP 001
Fuchosa, S.A. (19. orrialdea)	260	Galdaketa	Atxondo	– Ekoizpen Garbia: gure enpresaren etorkizuna (bideoa) – Enpresarentzako Ingurugiro-Adierazleen gidaliburua – Ingurumen-Bikaintasunaren Kasu Praktikoak CP 009
Fundiciones Gabiria, S.A. (5, 13. orrialdeak)	20	Galdaketa	Gabiria	– Produkzio Garbiaren 100 adibide EAEn. 3. liburukia – ISO 14001: zure enpresarentzako aukera (bideoa) – Ingurumen-Bikaintasunaren Kasu Praktikoak CP 007
Industrias Juno, S.A. (13. orrialdea)	96	Pinturen fabrikazioa	Erandio	– ISO 14001: zure enpresarentzako aukera (bideoa) – Ingurumen-Bikaintasunaren Kasu Praktikoak CP 002
Industrias Landu, S. Coop. (6. orrialdea)	32	Mekanizazioa	Olaberria	
Kide, S. Coop. (5, 15. orrialdeak)	81	Isolamenduak	Berriatua	– Enpresarentzako Ingurugiro-Adierazleen gidaliburua – ISO 14001: zure enpresarentzako aukera (bideoa) – Ingurumen-Bikaintasunaren Kasu Praktikoak CP 005
Munksjö Paper Decor, S.A. (14. orrialdea)	165	Dekorazio ijeketarako oinarritzko paperaren fabrikazioa	Berastegi	
Ofita, S.A.M.M. (10. orrialdea)	108	Bulegorako altzariak	Vitoria-Gasteiz	– Ekodiseinurako eskuliburu praktikoa. 7 urratsetan ezartzeko eragiketa – Ingurumen-Bikaintasunaren Kasu Praktikoak CP 011
Ona Electroerosión, S.A. (14. orrialdea)	135	Elektrohigadurarako makinen fabrikazioa	Durango	– Ingurumen-Bikaintasunaren Kasu Praktikoak CP 003
Talleres de Escoriaza, S.A. (20. orrialdea)	438	Sarrailagintza	Eskoriatza	– Hondakinak eta emisioak minimizatzeko Liburu Zuria. Estaldura elektrolitikoak (B Enpresa) – Produkzio garbiaren 100 adibide EAEn. 2. liburukia – Ingurumen-Bikaintasunaren Kasu Praktikoak CP 008
Zorelor, S.A. (11. orrialdea)	25	Produktu kimikoen fabrikazioa	Vitoria-Gasteiz	– ISO 14001: zure enpresarentzako aukera (bideoa)